

Kultura

Zuricheko eta Donibane Lohitzuneko zinema jaialdietan sari bana jaso dute 'Pikadero' eta 'Un otoño sin Berlín' filmek. > 11

Neskak ere Dantzari-dantzan irten dira Durangoko jaietan, lehenengoz

San Fausto eguneko Dantzari-dantzan, lehenengoz, lau emakumek eta lau gizonek parte hartu zuten. Durangoko dantzariak parekidetasunerantzako pausoa eman zuten horrela. Asteburu honetan amaituko diren jaiek utzitako sorpresa izan da. Bihar, Mozorro Eguna ospatuko da Durangon, eta domekan esango diete agur Pantxike eta Patxikotxuri. > 16

*“Zientzia desmitifikatu
egin beharko litzateke; ez
litzateke horren arrotza
edo tabua izan behar” > 10*

Oier Dominguez | Doktorea telekomunikazioan



‘Garita’ saga, etxean bezala

Iñaki Garcia puntistak Durangoko zesta profesionaleko tornea jokatu du, AEBetako geldialdi bat aprobetxatuta. Anaiagaz eta aitagaz batu da, Ezkurdin, ‘Garita’ sagaren bizipenak ANBOTOri kontatzeko. > 3



Lehior Elorriaga

Alquilamos soluciones

Eitua industriagunea, 71C
48240 BERRIZ (Bizkaia)
Tel.: 946 824 550
alkimax@alkimax.net
www.alkimax.net

Jai zoriontsuak opa deutsueguz!

ARMIARMA JASOGAILUAK

BELDAR JASOGAILUAK

ARTAZIAK

PERTSONA BAKARREKOAK

BESO ARTIKULATUAK

Durango > 2

Ekainean Tabiran okupatutako gaztetxea 'Sorginola' deituko da

Zornotza > 3

Motorra gurpilean duen ibilgailu elektrikoa aurkeztu dute AICn

Mañaria > 6

Burdina ardatz hartuta, bisita gidatua egingo dute, bihar

Durangaldea > 8

335.000 euroko inbertsioa prest Durangaldeko Enplegu Planerako

Herririk herri

San Fausto eguneko sorpresa: neskak ere Dantzari-dantzan

Bihar, Mozorro Eguna ospatuko dute sanfaustoetan

DURANGO Markel Onaindia Jaietako egitarauan iragarri bako sorpresa ekarri zuen martitzeneko San Fausto egunak. Neskak ere Dantzari-dantzara irten ziren lehenengo aldiz, mutilekin batera. Parekidetasunaren aldeko lanak sarri egin izan du topo tradizio ekintzekin, baina badaude pausoak ematen dabilzanak, zarata handirik egin barik. Horietakoak dira martitzen eguerdian dantza egin zutenak; Kriskitin, Txoritxu Alai eta Tronperriko dantzariak.

Miren Otxotorena, Garazi Sarrionandia, Maddi Caballero eta Ixone Aroma izan ziren neskak, eta Abel Iriondo, Aratz Zugazaga, Aritz Lasarguren eta Julen Maguregi mutilak. Pozik azaldu da Ixone Aroma, orain arte ukatua izan zaiena bizi ahal izan dutelako: "Txikitatik hain hurbiletik ikusi eta bizitako dantzan parte hartzea esperientzia itzela izan da". Kriskitineko kideak kontatu duenez, euren taldean egin izan dute antzeko esperientziaren bat, batez ere inauterietan edo kanpora egin-dako bidaietan. Baina, herriko

jaia bestelako kontua da, eta, azken urteetan, pausoa eman ala ez hausnartzen ibili dira. Jaietako egun handian, Tronperri eta Txoritxu Alaiko kideekin batera egin dute dantzan, eta ideia euren konpartitu ostean, aurten burutzea erabaki dute. Erronka ez ei da izan emakumeena bakarrik, Aromaren arabera: "Mutilek babestu gaituzte, eta borroka denona izan da".

Hurrengo urteetan ere gogoe-ta egiten jarraituko dutela dio Aromak: "Espero dut datorren urtean zortzi dantzari izatea,

Aroma: "Txikitatik hain hurbiletik ikusi eta bizitako dantzan parte hartzea esperientzia itzela izan da"

eta ez lau neska eta lau mutil". Gainera, oraindik badagoela zer hobetu uste du. Adibidez, arropa motaren eztabaida ez dute itxi. "Andra moduan irten nahi genuen, eta ez gizon mozorro-tuta". Dantzari-dantzara, prakak



Martitzeneko Dantzari-dantzan, Platillu dantza ere egin zuten neska-mutilek. Marisa Barrena

jantzita irten ziren neskak, baina, egunerokoan, emakumeen gehiengoak prakekin dabilela argudiatu du Aromak. Bestalde, gainerako dantzetan, ohiko janzkeragaz irten ziren neskak.

Mozorroak, bihar

San Fausto jaiak aurrera doaz, eta pare bat egun baino ez dira geratzen amaitzeko. Biharkoa izango da jaietako egun handietako bat: Mozorro Eguna.

Goizean goizetik, musika eta jai giroa zabalduko dira kaleetan, eta, arratsaldean, 18:30ean, taldekako mozorro desfilea egingo da, Madalenatik Andra Mariraino. Txosnagunean, mozorro-tzeko gehigarri bat ipini dute; laranja kolorez jantzita joatera animatu dituzte herritarak, Intxaurre elkarteari elkartasuna erakusteko -Herriko tabernen auziaren baitan, ixteko agindua eman du Auzitegi Gorenak-.

Mozorro Egunaz gainera, bihar, Elkartasun bazkaria egingo dute Landako Guneko txosnetan, eta, domekan, Keshala eta Anariren kontzertuekin amaituko dituzte jaiak, 18:00etan.

Udalaren egitarauan, Ingu-rumenaren Eguna izango da domekakoa, eta, 19:30ean, kalejira egingo dute Patxikotxuri agur esateko. 20:00etan amaituko dira jaiak, tren geltoki zaharrerako zabalunean.

'Sorginola' deituko da Durangoko gaztetxea

Tabirako gaztetxeko kide asko neskak dira

DURANGO M.O.

Ekainean Tabiran okupatu zuten eraikinari 'Sorginola' izena ipini diote. Gaztetxeko kide asko neskak dira, eta okupazio mugimenduan ohikoa ez den bereiztasun hori goraiatzeko balioko

du izenak. Guztira, bost izenen artean aukeratu dute gazteek.

Hainbat gaztek Galdara izeneko eztabaida prozesuan parte hartu dute, gaztetxearen filosofia, antolaketa eta izena erabakitzeko. Irail hasieran ekin zieten

batzarrei, eta prozesuaren emaitzak joan zen zapatuan, jaietako Gazte Egunean, aurkeztu zituzten, herriko ehunka gazteren aurrean.

Fundifes galdategi zahar-raren bulegoak okupatu zituzten gaztetxe bihurtzeko, eta jabeek ez dute salaketarik ipini, momentuz. Ordutik, batez ere, garbiketara eta obretan murgilduta ibili dira gazteak, aisialdi eskaintzarako tartea ere egin duten arren.



Gaztetxeko kideak, uztailan emandako prentsaurreko batean.

anboto
komunikabideak

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta
Bizkaia
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa:
946 232 523

Publizitatea:
946 217 902
publi@anboto.org

2015eko urriaren 16a,
13. urtea - 606. alea

Zuzendaria:
Jone Guenetxea Arrinda.
Administrazio burua:
Itziar Belar Zubizarreta.
Administrazioa:
Miren Abasolo Txabarri.
Publizitatea:
Goretti Alonso Armendia
eta Itxaso Martinez de
Arenaza Yarza.
Erredakzioa:
Aitziber Basauri Gandiaga,
Itsaso Esteban Urtiaga,
Joseba Derteano Bilbao,
Markel Onaindia Txabarri,
Amaia Ugalde Begoña.
Maketazioa:
Eider Alberdi Bengoa.
Zuzentzailea:
Mikel Azkarraga Etxegibel.

Laguntzaileak:



"Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua"



Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



Motorra gurpilean duen ibilgailu elektrikoa aurkeztu dute AICn

Etorkizuneko autoen diseinuan aukera berriak eskaintzen ditu, egileen esanetan



Alberto Peña (ezkerrean) eta Mikel Lorente ibilgailu elektrikoaren ondoan.

ZORNOTZA J.Derteano

Automozioaren inguruko 13 enpresek elkarlanean jardun dute teknologia berria garatzen, eta lau urteko lanaren emaitza asteon aurkeztu dute, Zornotzako AIC—Automotive Intelligence Centre— zentroan: motorra

gurpilean egokituta duen ibilgailu elektrikoa. Berrikuntza horrek, gidatzerako orduan, erraztasunak eskaintzen ditu, baina, batez ere, abantaila bat azpimarratu dute: gainera aldean irabazten den espazioa. “Maletategia aurrera eraman

daiteke edo aurrean zein atzean jarri. Espazio asko geratzen da nahi dena egiteko”, proiektuko zuzendari Alberto Peñaren esanetan. Martitzenean aurkeztu zuten autoak batera gainaldean du, baina autoaren azpiko aldean egokitzea da asmoa, orain-

dino espazio gehiago irabazteko. AICk Europa mailako proiektu honetan izan duen ardura, emaitzak automozio sektoreko zein handik kanpoko agenteei zabaltzea izan da. 2025ean, ibilgailuen %15 hibridoa izango dela kalkulatu dute, eta %3 elektrikoa, AICko zuzendari teknikoa den Mikel Lorenteren arabera.

Horrela, gaur eguneko ibilgailuetara gehitu daitekeen teknologia da, baina “potentzialik handiena zerotik hasitako ibilgailuetan ikusten dugu, 2020ra bitartean etorriko diren bigarren eta hirugarren belaunaldiko ibilgailuetan”. Mota askotako probak gainditu dituela, eta teknologia berria “erabat funtzionala dela” segurtatu du Peñak, eta hiru-lau urte barru merkatuan egon daitekeela.

Autogileekin hartuemanetan

Proiektua garatzen ibili diren bitartean, teknologia berria interesatu ahal zitzaizen autogile enprekin urtero batzartu izan dira, enpresa horien beharrianak jakin, eta eskakizun horiek aintzat hartzeko: “Joan zen astean mundu mailako autogile enpresa bati aurkezpen pribatua egin genion, eta jakin izan dugunez, oso ‘feed back’ ona izan zen”.

Mikologiari buruzko argazki lehiaketa antolatu dute

ZORNOTZA J.Derteano

Zornotzako Mikologia Elkar-teak espezie mikologikoen argazki erakusketa abiatu du. Luken Solagurenen oroimenez antolatzen dute, urtero.

Lehiakide bakoitzak argazki bi aurkeztu ditzake, gehiezez. Kartulinararen behe aldean argazkiaren izenburua jarri behar da, eta atzeko aldean egilearen datuak, helbidea eta telefono zenbakia. Argazkiak mikologia elkartearen lokalean aurkeztu daitezke, urriaren 19tik 22ra, 18:30etik 20:00etara.

Beste hainbat ekimen ere antolatu dituzte. Urriaren 24an, 08:00etan, perretxikoak batzera irtengo dira, Zubiondo plazatik. Hilaren 25ean, 10:30ean, perretxiko eta argazkien erakusketa egingo dute. Orduan jakinaraziko dute nor den argazki lehiaketako irabazlea. Marrazki tailerrak izango dira 10 urtera arteko gazteen-tzat, eta perretxikoak sailkatzen ikasiko dute 16 urtera artekoek. 12:00etan, perretxiko pin-txoen dastaketa egingo dute.

Hezkuntza aurrerakoiari buruzko gogoetak, bihar, Zelaieta zentroan

Andra Mari ikastolak antolatuta, lau hitzaldi izango dira, 10:00etatik aurrera

ZORNOTZA J.D.

Zornotzako Andra Mari ikastolak hezkuntzaren arloko hainbat gai jorratuko dituen hitzaldi sorta antolatu du, zapatu honetarako. Guztira, lau hitzaldi izango dira, Zelaieta Zentroko auditoriumean, Maddalen Iriarte kazetari eta ikastolako ikasle ohiak gidatuta.

“Biharko zornotzar euskaldun, prestatu eta arduratsuak

hezten” laguntzeko antolatu dituzte hitzaldiak, Andra Mari ikastolako kideen esanetan. Azken 50 urteetan, ikastolaren programa “hezkuntza euskaldun eta aurrerakoi baten aldekoa izan da, eta aurrerantzean ere, halaxe izaten jarraitu gura dugu”, adierazi dute.

Lehenengo hitzaldia Paul Kasares soziolinguista eta Nafarroako Unibertsitate Publiko-

ko irakasleak eskainiko du, 10:00etatik aurrera, eta eleaniztasuna eta kulturaren transmisioa izango ditu berba-gai. 11:00etan, K2K Emocionando-ko presidentea den Koldo Saratxagak hartuko dio lekukoa. Gizaki askeak hezteko hezkuntzak hartu ditzakeen bideen gainean jardungo du.

12:00etan, haur psikiatrian eta psikologian aditua den Rafael Cristobalek ‘Konfiantzaren pedagogia’ hitzaldia eskainiko du. 13:00etan hasiko da azken hitzaldiko protagonista Mari Luz Guenaga izango da. Deustuko Unibertsitateko ikertzaileak hezkuntzaren berrikuntzan teknologiak duen eraginaren gainean jardungo du.

Izen-ematea

Hitzaldiak dohakoak dira eta hezkuntzaren arloko eragile denei bideratuta daude: guraso, irakalse, ikasle zein herritarrei. Aforoa bete arte honako helbide elektronikoan egin daiteke izen-ematea: solasaldipedagogikoak@gmail.com.



Andra Mari ikastolak antolatuko ditu hitzaldiak.

Inplanteak jarri

eta hurrengo egunean
PROTESI BERRIAREKIN
mastekatu ahal izango duzu

ORAIN PROTESIA BEREHALA KARGATZEN ZAIEN INPLANTEEZ GOZATU AHAL IZANGO DUZU

BETI ZURE KIRURGIAREN SEGURTASUNAREKIN, 1 mm ARTEKO EBAKETAK (3D) EGITEN DITUEN HORTZETAKO 3D ESKANERRARI ESKER

15% -rainoko DESKONTUAK
WEB GUNeko TARIFETAN

Kontsultatu gure tarifak hemen:
www.clinicaekoden.com

* 36 hilabete baino gehiagorako finantzaketetarako, banku-finantzaketa kudeatzen dugu.

R.P.S. 44 / 14

Arkotza, 4-behea • Durango • T. 94 621 78 22

Zirkulazioaren murrizketa Alde Zahar osora hedatzea aztertzen dabil udala

Berrio-Otxoa kalean, 07:30etik 08:30era atzeratu du udalak zirkulazio ordutegia



Berrio-Otxoa kalean, 08:30etik 13:00etarako ordutegia dauka orain auto zirkulazioak.

ELORRIO Markel Onaindia
EH Bilduko gobernu berriak Berrio-Otxoa kaleko zirkulazio ordutegia murriztu du, eta Alde Zahar osoan gauza bera egitea aztertzen dabil. Izan ere, konturatu dira jende askok ez duela ordutegia karga edo deskargak egiteko erabiltzen, aparkatzeko edota bidea laburtzeko baizik. Berez, oinezko kaleak dira, eta auto asko pasata, zorua kaltetu egiten dela uste dute arduradunek, saltokiei eta oinezkoiei ere mesederik ez egiteaz aparte. Edozelan ere, behin betiko erabakia merkatarien eta auzotarren iritzia jakin ostean hartuko dute. Joan zen eguneko udalbatzarrean berba egin zuten gaiaz, EAJk erabaki horren inguruan galdetu eta gero.

Ordutegia eta sistemak
Idoia Buruaga alkateak azaldu zuenez, Berrio-Otxoa kalea goizeko lehen orduan bidea laburtzeko erabiltzen du jende gehienak; “zirkulazioaren %90”, hain zuzen. Horregatik, ordutegia

07:30etik 08:30era atzeratzea erabaki zuten uda hasieran. Gainera, itxiera ordua 12:00etara aurreratu zuten, baina jaien ostean, 13:00etan ezarri dute. Buruagaren esanetan, “saltokiak ez kaltetzeko” hartu dute erabaki hori.

Buruagak aurreratu zuen ez dela ordutegiaren kontua bakarrik, Alde Zaharreko sarrerak kontrolatzeko sistemak ere begiratzen dabiltzala. Adibidez, barruan denbora mugatu batez egoteko eskubidea ematen duen sistema baloratzen dabilta.

Buruagaren arabera, datozen asteetan batzarra egingo dute Berrio-Otxoa kaleko merkatariekin, zirkulazioa kontrolatzeko modua adosteko.

Goizeko lehen orduan bidea laburtzeko erabiltzen du jende gehienak; “zirkulazioaren %90”

Elorriarren udal zergak eta tasak ez dira igoko 2016an

Nobedade lez, hiru hobari berri egongo dira 2016ko zerga eta tasekin lotuta

ELORRIO M. O.
2016rako udal zergak eta tasak bere horretan mantentzea erabaki zuen udalak, azken bilkuran. EH Bilduko Jon Ander Graciak adierazi zuen adostasuna bilatzea izan dela udal gobernuaren helburua. Nobedade lez, hiru hobari berri egongo dira.

Alde batetik, irisgarritasuna hobetzeko etxean eginiko obrei lotutakoa. 65 urtetik gorakoa edo elbarria izanez gero,

%100eko hobaria edukiko dute, eta beraz, ez dute zerga ordainduko. Orain arte, diru-laguntza eskatzea zen aukera. Igogailuak ipintzerakoan, zerga erdira arte bajatuko dute, baina, beti ere, 3.000 euroko kopurutik pasa barik. Bestetik, eguzki plakak ipintzeko eta Alde Zaharreko etxeetan obrak egiteko ere egongo dira hobariak.

EH Bilduren proposamena EAJren gustukoa izan zen,

baina jeltzaleak abstenitu egin ziren, esanez Alde Zaharreko etxeekin lotutako hobaria ezin dela era orokor batean planteatu. Baina, Graciaren esanetan, etxeak babes mailaren arabera sailkatuta daude, eta hobariak ere mailakatuak izango dira.

Herriaren Eskubideko Juan Pedro Gallastegi abstenitu egin zen bilkuran, bere alderdiak ez duelako gaia lantzeko denbora eduki.

Udalak aldaketak egin ditu arreta zerbitzuan

Diruzaintza saila HAZ-ren bulegora bajatu dute

ELORRIO M. O.
Herritarren Arreta Zerbitzuan aldaketak egin ditu udalak. “Langileek gustura egon behar dute, horrela bada, zerbitzua hobea izango da eta”. Idoia Buruaga alkateak esan du beharginak ez zeudela gustura, sarritan ezin ziotelako lan kargari erantzun. Diruzaintzan ere arazoak zeudela-eta, sail hori HAZ-ren bulegora bajatu dute, eta bertan egingo dira ordainketak. Horrela, guztira, lau beharginek

jardungo dute elkarlanean. Alkatearen esanetan, “langileak pozik daude” aldaketagaz.

Gainera, herritarrak eta teknikariak batzeko, gela bat atonduko dute behean. Orain arte, eskaeraren bat bazuten, herritarrak ziren udaletxean gora eta behera mugitzen zirenak.

EAJk kezka azaldu zuen osoko bilkuran, aldaketen inguruko informaziorik ez zutelako, baina Buruagak informazioa eman zutela erantzun zien.

Jubilatuen tabernaren ustiapen lehiaketa abian

Datozen bi urteetarako ustipena esleituko dute



Jubilatuen taberna, Atxondon, Ziarreta 3 kalean.

ATXONDO J.Derteano
Udalak jubilatuen tabernaren ustiapena esleitzeko prozedura hasi du. Kontratua urte birako izango da eta, esleipendunak, eskatzen badu, beste urte birako luzapena jaso dezake, kontratua urteka berrituz, Udalak hala onartzen badu. Oinarriak asteon argitaratu dituzte Bizkaiko Boletín Ofizialean, eta urriaren 29ra artekoa da proposamenak eta dokumentazioa aurkezteko epea, udaletxean. Udalak ezarritako gutxieneko zenbatekoa 1.200 eurokoa da, 11 hilabetetan banatuta. Esleipena erabakitzeko orduan, puntuen %50 preziorik altuenak jasoko du; gainerako puntuak esperientzia zein zerbitzua euskaraz eskaintzeko gaitasuna moduko irizpideak kontuan hartuz banatuko dituzte.

Negozio berriak abian jartzeko laguntzak

Laguntza teknikoa zein diru-laguntza jaso daiteke

OTXANDIO J.Derteano
Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuak lanik ez duten eta euren negozioa jartzeari ekin nahi dioten lagunei zuzendutako laguntzak onetsi ditu.

Laguntzak bi ekintzaile motari zuzenduta daude, eta, kasu bietan, plazak mugatuak dira. Batetik, negozio-ideia bat dutenei ideia hori garatzen lagunduko diete; lau plaza daude. Bestetik, ideia hori definituta eta bideragarritasun plana eginda dutenei, hurrengo hilabeteetan negozioa martxan jartzen la-

gunduko diete. Plaza bi daude arlo horretarako.

Laguntza teknikoa jasotzeaz gainera, ekintzaileek diru-laguntzak ere lor ditzakete, Lanbidetik. Otxandio udalerrian zein beste sei herritan Zuiako Koadrilla da Lanbideren deialdia gauzatzeko erakunde laguntzailea. Beraz, izen-ematea Zuiako Koadrillan egin behar da. Horretarako epea urriaren 27an amaitzen da, eta helbide elektroniko honen bidez egin daiteke izen-ematea: economia@cuadrillazuia.com.

BERBALDIAK

EUSKERAZ
BE BAI!

AMETXeko Euskara zerbitzua

San Pedro kalea, 5

Tel.: 946 732 026

euskara@ametx.eus

BERBATOKIAK

ANTXETA, BEREZI, FAR-FAR,
GARAMENDI, GURIA, HARRISON,
HERRIKO BELATXIKIETA, HITZAK,
IRUARRI, JAVI, LEKUBERRI, PUZO'S,
SUKOI, SINGING FROG, TOMASA,
URANGA, URTZA, VENECIA,
ZORNOTZAKO BATZOKIA.

BADATOZ BERBALDIAK!

EUSKARAZ HITZ EGIN NAHI DUZU?

**EUSKARAZKO HARREMANAK
ZABALDU NAHI DITUZU?**

**EGIN ZAITEZ BERBAKIDE, ETA
ETOR ZAITEZ BERBALDIETARA!**

Azaroan BERBALDIAK programa martxan
jarriko da. Askok badakizue zer den,
baina oraindik ez badakizue: ZER DA
BERBALDIAK programa?

- Euskaraz berba egiteko eta praktikatzeko ekitaldia. Guztiz DOHAINIK.
- Lagun euskaldunak egiteko aukera.
- Taberna baten, kafe bat hartu eta euskaraz ikasten dabiltzan edota hobetu nahi dutenekin hitz egin; beti ere, euskaraz ondo dakitenen laguntzarekin (BERBALAGUNAK).
- Aste birik behin, ordubete.

PARTE HARTU NAHI BADUZU, erdu
Zornotza udal euskaltegira, edo telefonoz
deitu: 946 732 026. Urriaren 30a baino lehen.

***Eman ordubete
euskarari!***

Burdina ardatz hartuta, Mañaria zeharkatuko dute bisita gidatuan

Jon Arroita izango da ondare jardunaldiko bisita gidatuaren zuzendaria



Mañariak kokapen estrategikoa izan zuen burdinaren garraioan. Lehiar Elorriaga

MAÑARIA Jone Guenetxea Gerediaga elkarteak eta Bizkaiko Foru ALdundiak antolatutako Ondare Jardunaldien barruan, Durangaldeko egitarauak geldialdia egingo du, bihar, Mañarian.

Aurtengo jardunaldien gaia burdina da. Izan ere, Gerediaga elkarteak gogora ekarri duenez, Durangaldean, urteetan zehar, burdina eragile ekonomikoa izan da: antzinako burdinoletan eta errementerietan, eta oraingo siderurgia eta metalaren industrietan. Horregatik, programatutako ekintza guztiek burdinaren kulturara hurbilduko dituzte bisitariak, burdinolen azarnak ezagutuz, burdinari lotu-

tako kondairak entzunez, zein gaur egungo enpresen barrura sartuz.

Durangaldera begira antolatutako egitarauaren barruan, Mañarian bisita gidatua egingo dute, bihar, 19:00etan, plaza-
tik abiatuta. Jon Arroita izango da irteera honen gidaria. Arroita azaldu duenez, burdinaren eta Mañariaren

Bizkaiko burdina
hegoaldera garraiatzeko,
Mañaritik igarotzen den
bidea erabiltzen zen

go dute, bihar, 19:00etan, plaza-
tik abiatuta. Jon Arroita izango da irteera honen gidaria. Arroita azaldu duenez, burdinaren eta Mañariaren

arteko lotura horren bi alderdi landuko dituzte. Batetik, antzinako ohituretan burdinak izan duen garrantzia ezagutaraziko dute, bai ohituretan baita mitologian ere. Bestetik, Mañariaren kasuan, burdinak eta bideak izandako lotura aztertuko dute. Izan ere, Bizkaia burdina ekoizteko lekuri ospetsuena izan zen European, eta material hori hegoaldera garraiatzeko, Mañaritik igarotzen den bidea erabiltzen zen. Ildo horretatik, XVII-XVIII. mendeetan benta izan zen Kaltzada baserriari buruz berba egingo du Arroita, besteak beste.

Bestalde, Mañariko egitaraua kontzertu batekin amaituko dute, 19:30ean.

Berdintasunaz gogoeta egiteko lau hitzordu

‘Abadiñok berdintasuna diño’ kanpainako ekimena

ABADIÑO Itsaso Esteban Gizon-emakumeen berdintasunaren inguruan gogoeta egiteko, tailer irekiak antolatu ditu udalak. Jasotzen dituzten iritziak udalaren II. Berdintasun Plana osatzeko baliatuko dituzte, eta *Abadiñok berdintasuna diño* izeneko parte-hartze prozesua ipiniko dute martxan.

Bi lantalde osatuko dituzte parte-hartze prozesu horren barruan: herritarrei irekia bata, eta emakumeei zuzendua bigarrena. Izan ere, Morenoren berbetan, “abadiñarrek inork baino hobeto dakite zein arlotan gertatzen den oraindik bazterkeria, eta zelan eragotzi”.

Bina hitzordu ipini dituzte talde bakoitzarentzat. Urriaren 20an eta azaroaren 5ean egingo dituzte herritar guztiei irekita dauden tailerrak; eta urriaren 22an eta azaroaren 12an, Abadiñoko emakumeei bereziki zuzendurikoak.

Bideo-tailerra gazteekin
Gazteek genero berdintasuna lantzeko, bideo-tailerra burutzeko hitzordua egon da, bestalde, Abadiñon, gaur arratsaldean. Indarkeria sexistaren kontrako mezuak batzen dituen Beldur Barik lehiaketara aurkezteko lanak egitea izan da tailer horren helburua.

Igogailua jarri edo fatxada konpontzeko laguntzak

Udalak 25.000 euroko aurrekontua lotu du aurten

IURRETA Aitziber Basauri Fatxadak eta estalkiak birgaitzeko, oztopo arkitektonikoak kentzeko, eta igogailuak jartzeko diru-laguntzak emateko deialdia zabaldu du Iurretako Udalak. Aurten, 25.000 euroko aurrekontua onartu du udalbatzak. 2014ko urriaren 1etik 2015eko irailaren 30era bitartean obra-lizentziak lortu dituzten obrak dira diruz lagunduko dituztenak. Horretarako, dagoen udal ordenantzan ezarritako baldintzak bete beharko dituzte. Urriaren 30era arte egin

daiteke eskaria, udal ordezkariak jakinarazi dutenez.

Iurretako Udalak 2009an onartu zuen diru-laguntza hauek arautzen dituen ordenantza. Diru-laguntza horietaz baliatuta, azken sei urteetan, jabeekideen 23 erkidegok erabaki dute lanak burutzea: igogailua jarri dute hamarrek, aurrealdea edo fatxada birgaitu dute zortzik, eta hiruk teilatua konpondu dute. Fatxada eta teilatua konpondu dituzte beste bik. Guztira, 171.319 euro eman ditu udalak diru-laguntzatan.

Urtea amaitu orduko aurkeztuko dute II. Berdintasun Plana

Udaletxean aurkeztu zuten, herenegun, II. Berdintasun Planaren zirriborroa

ZALDIBAR I.E. 2016-2019 urtealdian indarrean egongo den Berdintasun Planaren behin behineko testua aurkeztu zuten, eguaztenean, udaletxeko pleno aretoan. Otsailean hasitako prozesuaren emaitza da II. Berdintasun Planaren zirriborro horretan jasotakoa, bi batzar irekitan parte hartu zuten herritarren ekarpenetan oinarriturikoa. Azken legegintzaldian indarrean egon den planaren ebaluazioa egin zuten tailer horietan, eta datozen

urteetako berdintasun arloko lehentasunak adostu.

Udalaren barne jardunetik berdintasuna bultzatzeko hainbat ekintza zehazten ditu, batetik, plan horrek. Udalaren kontratazioetan, diru-laguntzetan eta hitzarmenetan berdintasuna bultzatzeko neurriak ezartzea, esaterako. Herriari begira, bestetik, emakumeak ahalduzko bitartekoak eskaintzea, gizarte antolakuntza erantzunkidea bultzatzea, eta emakumeen aurkako indarke-

ria desagerraraztea dira planaren zirriborroan jasotako hiru helburu nagusiak.

Planaren helburuak lortzeko, berdintasunaren aldeko sentsibilizazioan indarra egitea ezinbesteko jo dute tailerretan parte hartu duten herritarrek, eta emakumeen aurkako indarkeria prebenitzeko, informazioa eta formakuntza eskaintzea.

II. Berdintasun Planaren behin betiko dokumentua osatu, eta urtea amaitu orduko planoan aurkeztuko dute.



Berdintasunaren aldeko sentsibilizazioa gehiago lantzea da helburuetako bat.

**RENAULT**
Passion for life

Bigarren eskuko ibilgailuek espazio zabala behar zuten, eta eman egin diegu.

GAURSA OCASIÓN

ESPAZIO ZABALA

BIGARREN ESKUKO IBILGAILUAK IURRETAN

Kalitate handia eskaintzen dugulako (ehun puntutan baino gehiagotan errebisatutako autoak); 24 hilabeterainoko bermea ematen dugulako; stock handia eta marka guztietako ibilgailu-aukera zabala dugulako; gure prezioak azken prezioak direlako; finantziario-baldintza ezin hobeak eskaintzen ditugulako... Eta beste hainbat arrazoi tarteko, bigarren eskuko ibilgailu baten bila bazabiltza, zatoz **IURRETAKO GAURSA ZENTRO HANDIRA.**



Renault recomienda **elf**

**RENAULT
OCASIÓN**

ZER EZ ZENUKE EMANGO HORRELAKO AUTO BATENGATIK

GAURSA

Arriandi, 12. Tel. 94 620 33 00. IURRETA www.gaursa.com

335.000 euroko Enplegu Plana prest, langabeei laguntzeko

Durangoko Udalak ez dio jarraituko zigortuta dagoen iazko prozedurari



Ezkerretik hasita, Idora Buruaga, Pilar Ríos eta Aitor Lopez Amankomunazgoko presidentea.

DURANGALDEA M. O.

Eskualdeko langabeen lan gaitasunak eta egoerak hobetzea. Horixe da instituzioek eta eragileek ezarri duten helburua aurtengo Enplegu Planerako. 53 kontratazio egiteko, 335.000 euroko diru-laguntza eman du Lanbidek Durangalderako.

Pilar Ríos Durangoko alkatordeak adierazi duenez, batez ere zerbitzuen sektoreko enpresak hartuko dituzte kontuan, Durangon horixe delako sektore indartsuena. 177.000 eurogaz, 34 laguntza egongo dira enpre-

sentzat. Langabe durangarrak Lanbideetik hartu beharko dira, eta lan mundura sartzeko zailtasun handiena duten sektoreei garrantzia emango diete.

Iazko Enplegu Planeko kontratazioan “arau-hauste larria” egiteagatik Eusko Jaurlaritzak zigortu egin zuen udala; udalak hamahiru behargin hartu zituen brigada lanetarako, Sartu-Zabaltzen erakundea bitartekari lez erabilita. Beraz, eta nahiz eta egindakoa defendatu, udalak ez dio jarraituko zigortuta dagoen iazko prozedurari.

Elorrioren, hasita dago eskaerak aurkezteko prozesua, eta azaroaren 27ra arte egongo da martxan, Idora Buruaga alkaterearen arabera. Eskualdeko langabeentzat –Durango ezik– hamazazpi diru-laguntza kudeatuko dituzte, 158.000 eurogaz, eta horietatik hamabi Urkiola Landa Garapenaren bitartez. Hemen ere, Lanbideetik etorrikoak dira langabeak. Basoen garbiketarako edota eskualdeko turismo plana eguneratzeko hartuko dituzte langabeak, besteak beste.

Hezitzaileekin euskararen erabilera indartu guran

Hezitzaileentzako gida bat kaleratu berri dute

DURANGALDEA M. O.

Ume eta gazteen artean euskararen erabilera bultzatzeko asmoz, hezitzaileentzako gida bat kaleratu dute. Hain zuzen ere, begiraleei, entrenatzailei, jantoki zaintzaileei eta irakasleei zuzenduta dago. Arabako Foru

Ikasturte hasiera, eskolaz kanpoko jardueretako begiraleei banatzeko aprobetxatu dute

Aldundiak argitaratu du, eta Durangoko, Elorrioko, Zornotzako, Berrizko eta Zaldibarko udalek eta Amankomunazgoak ere sustatu dute gida.

Aurtengo ikasturte hasiera, eskolaz kanpoko jardueretako begiraleei banatzeko aprobetxatu dute, antolatzaileek esan dutenez. Gidan, erabilera indartzeko pauso batzuk eskaintzen dira. Adibidez, jarduera posibleak, motibazioa handitzeko esamoldeak, edota kiroletako hiztegi teknikoak dituzte eskura.

Goikoetxea eta Agirre garaile, nesken paleta partiduan

GARAI M. O.

Herriko jaietan eguraldiagatik bertan behera geratutako pilota jaialdiaz gozatu ahal izan zuten garaitarrek, joan zen zapatuan. Bertan, besteak beste, nesken paletako MPB zirkuituko neurketa bat jokatu zuten. Goikoetxea eta Agirre zeuden alde batetik, eta Pradera eta Isasmendi bestetik. Lehenengo bikotea izan zen garaile, baina alde txikia aterata.

Paletakoaz gainera, zapatuko jaialdian beste partidu bi jokatu zituzten. Lehenengo neurketan, umeek hartu zuten parte, eta hirugarrenean, Asier Aspuru eta Aitor Arabiourrutia abadiñarrek. Eskuz jokatu zuten azken hauek, eta buruz-buru neurtu zituzten indarrak.

Jaietako argazki lehiaketa nork irabazi duen aukeratuko dute

IZURTZA J.Derteano

Jaietan hamaika aukera izaten da argazki bitxiak ateratzeko. Horregatik, Izurtzako Udalak argazki lehiaketa antolatu zuen, irailean, herrian ospatu zituzten jaietan. Jaietan horrelako lehiaketa bat antolatzen duten lehen aldia izan da.

Sei-zazpi lagunek parte hartu dute lehiaketan, eta 20 bat argazki jaso dituzte. Parte-hartzaile bakoitzak hiru argazki aurkeztu zitzaizkien, gehienez. Udaleko Kultura Batzordeak dagoeneko aukeratu du irabazlea, baina oraindik ez du jakinarazi nor den. Aurtengo argazki lehiaketaren irabazlearen izena datorren astean, urriaren 22ko egunean, iragarriko dute, udaleko webgunean: www.izurtza.net.

SEI HANKAKO MAHAIA

IDOIA AGORRIA
PSE-EE



Gora Euskal Estatutua

Aste honetan, Senatuan parte hartu dut autogobernuari buruzko mozio bat bultzatzeko. Mozio horretan, Estatutua betetzeko eskatzen zen, ez besterik. Eta, orain dela egun gutxi, Idora Mendiak gogora ekarri digu Euskadi 1936ko urriaren 1ean sortu zela, “Errepublikako Konstituzioarekin bat etorrita”, “Gorteetan zeuden ehunka diputaturen txaloen artean”, eta atzealdetik “Gora Euskal Estatutua” zioen oihua entzuten zela. Oihu hori euskal borrokalari engaiatu batek egin zuen: Dolores Ibarrurik.

Hark ere gogorarazi zigun Estatutua Alderdi Sozialistak eskaintako bidearen emaitza izan zela, eta euskaldunen arteko eta euskaldunen eta instituzio demokratiko guztien arteko akordioaren fruitua izan zela. Estatutua sortu zen euskal herriak autogobernua izateko egin zituen eskaerak betetzeko eta, aldi berean, justizia sozialeko oinarriak onartzeko. Dolores Ibarrurik irakatsi zigun lehen ikasgaia izan zen elkarrekiko onarpena behar dela akordio handiak egiteko eta aurrera egiteko nahiak eraikitzeak. Desberdintasunak onartuz, legezotasuna errespetatuz, eta askatasun eta justiziako oinarriak jarraiki. Artifizio linguistikorik edo juridikorik asmatu gabe, eta, batez ere, BATZEKO gogoz: Horrela ulertu zuten sozialistek 1936an, horrela ulertu zuten egungo demokraziaren hasieran, eta horrelaxe ulertzen dugu 2015ean egungo sozialistok. Konpromisoa dugu gure autogobernua hobetzeko eta eskubide sozialak indartzeko, adostasuna eta legezotasuna oinarritzat hartuta, eta gainerako lurraldeekin solidario izanda. Azken batean, akordioak batuz egin behar ditugu, eta, jakina, gero bete egin behar dira.

ekin ner group

ekin S. Coop.
Arriagane Industrialdea (Boraa auzoa)
48340 AMOREBIETA
www.ekin.es



HEKi
HERRI KIROL KLUBAK

Tel.: 656 782 552
heki.iurreta@gmail.com

Umeentzako
erakustaldiak eta antolaketak

Reincidentes, Hesian eta PAM urriko jaietako kartelburuak

Urriaren 24an izango da kontzertua, herriko parkean, doan



Zuriñe Hidalgo da Hesian taldeko abeslaria.

MALLABIA Jone Guenetxea Igandean abiatuko dituzte urriko jaiak, nesken eta helduen pala zirkuituko partiduekin frontoian. Hurrengo astebururako ere, egitarau oparoa prestatu dute. Urriaren 23an, ostirala, umeentzako tailerren

Nahikarik salsa ikastaroan parte hartzeko dei egin du

Ikastaroan parte hartu gura dutenek Mallabiko udal liburutegian eman dezakete izena

MALLABIA Jone Guenetxea Nahikari emakume elkarteak salsa dantza ikastaroa antolatu du, datozen hiru hilabeteetarako (urria, azaroa, abendu). Ikastaroa asteartean izango da, 20:15etik 21:30era, eskoletako gimnasioan. Ikastaroa joan zen asteartean martxan jarri zuten

eta buruhandien ostean, txupinazoa jaurtita ekingo diete jaiari. Elizpeko pilota txapelketako finalaren ostean, oilasko pintxoak banatuko dituzte. Ondoren, Beñat Ugartetxea eta Odei Barroso bertsolariekin tabernarik taberna joango dira. Gaua Basajaunen erronomia doinuekin amaituko dute Mallabian. Urriaren 24an, berriz, areto-futbol eta nesken frontenis partiduez gainera, erreskateko txakurren erakustaldia eta Pepa eta Kutxo pailazoak izango dira. Jaietako ekitaldi nagusietako bat gaueko kontzertua izango da. PAM, Hesian, Reincidentes eta DJ Bull izango dira taula gainean.

Urriaren 25ean amaituko dira jaiak. Pilota eta areto-futbol partidua, Txan Magoa, Zaldibarko Euskal Liga eta txokolada izango dira eguneko hitzorduak.

arren, elkarteak kideek diotenez, interesa dutenek izena emateko aukera dute oraindik. Salsa dantzatzeko ikasi gura dutenek Mallabiko udal liburutegian eman dezakete izena, 943 176 691 telefono zenbakira deituta, edo bestela, kulturetxea@mallabia.eus posta elektronikora mezua idatzi dezakete. Tarifei dagokionez, Nahikari emakume elkarteak bazkideek 15 euro ordaindu beharko dute, eta gainerakoek 25 euro.

Menpeko gaixoen buruan sartzeko ikastaroa, Berrizen

BERRIZ A. U.

Familia zaintzaileentzako ikastaroa prestatu dute, Berrizen, menpeko gaixoen arazo psikopatologikoak lantzeko. Buruko osasunagaz eta osasun emozionalagaz lotutako hainbat arlo landuko dituzte: afektibitate arazoak, antsietatea, dementzia, alzheimerra, eta bestelako gaixotasun kognitiboak. Arazo horiek zelan azaltzen diren, eta zaintzaileek zelan jokatu dezaketenez ikasiko dute ikastaroan.

Azaroaren 6tik abenduaren 11ra izango da ikastaroa, barikuetan, 16:30etik 18:30era. Izena urriaren 31 baino lehen eman behar da, Gizarte Zerbitzuetan.

Oizera igoera, esklerosiaren kontra egiteko

BERRIZ A. U.

Urriaren 25ean, urtero Oizera egiten duten igoera berezia egingo dute berriztarrek. Mendi-buelta egiteaz batera, Bizkaiako Esklerosi Anizkoitzaren Elkarteak laguntzeko irteera egiten dute azken aspaldian, eta berrehun lagun baino gehiago animatzen dira ibilaldira.

Oizera joateko, urriaren 19tik 24ra eman daiteke izena, kiroldegian, eta egunean bertan ere bai, Elizondo plazan. Plaza horretatik, 09:00etan irtengo dira Oizerantz, eta inskripzioak 3,50 euro balio du.

> DURANGALDEA ASTEON

Erosketa bonuak atera ditu EMEK

ELORRIO > Elorrioko Merkatarien Elkarteak erosketa bonuak atera ditu. 20 euro ordainduta, 30 euroko erosketa egin ahalko dute herritarrek. Erroldatutako 18 urtez gorakoek eskatu ahalko dituzte bonuak, pertsonako bi, hain zuzen ere. Turismo bulegoan erosi ahalko dira, urrian eta azaroan.

Dislexiaz jardungo dute ikastaroan

IURRETA > Dislexiak, ikasteko zailtasunean eta eskola-porrotean duen eraginaz berba egingo dute martitzenean, hilaren 20an, Iurretan. Udalak antolatutako ikastaroa 18:30ean hasiko da, Ibarretxe kultur etxean, eta Isabel Molinak eskainiko du, Dislebi erakundeko lehenakariak.

%5eko deskontua erosketetan

DURANGO > Dendak Bai elkarteak saltokietan, %5eko deskontua egingo dute, urriaren 17tik 31ra bitartean, Durango txartela erabiltzen duten erosleentzat. Txartel hori doakoa da, eta urtean zehar erosleei opariak eta deskontuak egiten dizkiete, bezeroen kontsumoa eskertzeko.

Iritzia

ARGAZKI

lehiaketa

KI

2016

anboto

DURANGALDEA IRUDITAN

Bozkatu zure argazki gogokoena anboto.org webgunean.

2016

Durangaldeko egutegia



astekaria@anboto.org
asteartea 17:00ak arteko epea

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:

Bixente Kapanaga 9,
48215 - Iurreta
• Izen-abizenak • telefonoa
• helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia

-DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO-

Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarreak barne).

ANBOTOk ez du bere gain hartzen kolaboratzaileen zutabeetan, iritzi artikuluetan edo gutunetan adierazitako eta emandako iritzien erantzukizunik.



Oier Dominguez (Elorrio, 1979) | Cum Laude lortu du doktoretza tesian



“Sentsorez eta telekomunikazio sistemez hornituta gaude gu geu”

Giza begian oinarritu duen tesian terahertz sistemei egindako ekarpenagaz Cum laude lortu du

> BERBAZ Aitziber Basauri 2008an hasi zen Oier Dominguez ‘Giza begia’ doktoretza tesiagaz. Egindako ekarpenari Cum laude eman diote irailen; nazioarteko aipamen berezia ere bai. Phoenix-ko St. Joseph ospitalean (AEB) eta Brenoko unibertsitatean (Txekiar Errepublika) egon da lanean.

Zertan oinarritu duzu zazpi urteko ikerketa lan hau?

Argazki-kamera arrunt batek 35 mm-ko foku-distantzia izan dezake. Eta futbol-zelaietan erabiltzen diren teleobjektiboek askoz handiagoa, jakina! Egungo mugikorretako kamarek, bestalde, zortzi edo hamar megapixel dituzte. Giza begiaren lenteak, aldiz, 16 mm-ko foku-distantzia hartzen du gehienez, eta 0,02 megapixel baino ez ditu begirada finkaturiko ikusmen esparru horretarako. Orduan, nola liteke horren ondo ikustea? Horri erantzun diogu. Bainugelan dagoen ulea ikusteko gai gara gu. Argazki-kamera batek ez.

Eta zein da erantzuna?

Irudia erretinan ondo proiektatzen dela uste dugun arren, ez da

horrela. Oso ondo fokatu arren, irudia lausotuta dago. Difrakzioa deritza horri. Eguna argitzean, pertsianako zirrikitutik sartzen den argiak proiektatutako irudiagaz berdina gertatzen da. Edozein proiektzio beti dago lausotua, apur bat bada ere; inperfektua da beti, salbuespenik gabe. Eta burmuinak inperfektzio hori erabiltzen du begiaren gaitasun hori lortzeko: informazioa puntu bakar batean behar-rean, puntu askotan dago, eta hori guztia jasotzeko pretatuta dago begia. Horri esker ikusten dugu horren ondo!

Zergatik giza begia?

Antenen inguruan nintzen egiteko doktoretza tesia. Baina, tesiaren zuzendari izango nuen a egutia nuen, Nafarroako unibertsitatean, eta gai hau proposatu zidan, ekarpen garrantzitsua egingo zuelakoan. Hala ere, antenekin lotura handia du.

Zein da, ba, ekarpen hori?

Oso sentsore gutxi ditu begiak, 0,02 bat megapixel baino ez. Baita kamera edo irudigintza sistema batzuek ere: terahertz sistemek. Argi ikuskorra har-

“Sentsore gutxigaz bereizmen altua lortu daitekeela frogatu dugu”

“Bainugelan dagoen ulea ikusteko gai da begia, argazki-kamera bat ez”

tzen dute ohiko kamarek; infragorriek, berriz, berotasuna edo gaueko irudiak. Horren azpitik, terahertzetan, argi edo uhinek propietate oso bereziak dituzte: adibidez, besoari argazkia aterata, azaleko minbizia duen ikusi genezake. Ekarpen handia da hori; izugarria da teknologia horrekiko interesa. Terahertzetan, lainoa garden bihurtzen da, beraz, zergatik ez sortu irudigintza sistema bat, baldintzak egokiak ez direnean, hegazkinek lur har dezaten? Oso puntako sektorea dago hor. Arazo bat dago, baina konpondu beharrekoa.

Zein da arazo hori?

Gutxienez, 0,2-0,3 megapixel behar dira irudi bat ateratzeko: 200.000 edo 300.000 pixeleko kamera behar dugu, eta 200.000 edo 300.000 antena txiki. Zein da arazoa? Uhin maiztasunean, behera joan ahala, antenen tamaina gero eta handiagoa dela. Argi ikuskorreko kamera batean leku txikian integratu genezakeena, terahertzetako kameran sartzeko, itzelezko lekua behar dugu. Beraz, sentsore asko behar ditugunez, zelan lortu eroangarria den sistema? Hor dago arazoa.

Horretan lanean ari dira?

Batzuek 100.000 edo milioi bat sentsore erabili beharrean, bakarra erabili dute, kanoi bat bailitza. Hala ere, horrela, denbora asko behar da irudi bat sortzeko, minutu bat inguru. Ezingo genuke hegazkin batean erabili. Gainera, hor legoke bereizmenaren arazoa. Begiak oso sentsore gutxigaz, megapixel dun kamera batek lortu ezin duena lortzen du: hartara, 16 mm-ko foku-distantzian, gura beste megapixel dun kamera bategaz ez dago bainugelan dagoen ule hori ikusterik; begiak, aldiz,

ikusten du. Zergatik? Ez duela-ko difrakzioa erabiltzen.

Tesian horixe arrazoitu duzue.

Argazki bat lausotu eta gero, “deslausotu” egin daitekeela frogatu dugu; gainera, bereizmen hobeagaz. Difrakzioaren bidez lortzen da hori: hobeto ikusi daiteke, eta aurretik ikusi ezin zena, ikusi. Adibidez, matrikula bat. Horixe egiten du begiak. Alderantziz ezinezkoa da: lausotu gabeko irudi edo argazki bati ezin zaio bereizmena gehitu. Hala ere, guk eredu perfektu bat landu dugu: gaur egun, edozein sistematik dagoen zarata ez dago begian. Tesian zarataren arazoa konpontzeko dago.

Errealitate izango da inoiz, azaleko minbizia ikustea?

Bai, dudarik gabe. Begiaren paradigmatik eroangarritasuna konpondu dugu. Landutako prozedura matematikoagaz, sentsore gutxigaz bereizmen altua lortu daitekeela frogatu dugu, eta ekarpen handia da terahertz sistemetarako. Posible dela erakusten digu giza begiak. Hala ere, nola egiten du zarata saihesteko? Horri erantzun behar zaio.

Telekomunikazioek eragin itze-la dute gure egunerokoan, eta guztiz arrotzak zaizkigu.

Arrotzak baino, esango nuke, kutxa magiko bat lez ikusten direla. Telefonoa, reuterra, argazki-kamera... hor daude, zerbait egiten dute, argi batzuk dituzte... baina ez galdetu nola! Telekomunikazioek gure bizitzan duten eraginaz ez gara kontziente, ezta gu geu sentsorez eta telekomunikazio sistemez hornituta gaudela ere. Ikusmena adibidez: argi ikuskorra begira sartzean, begian ditugun antenatxoek seinale elektriko bihurtuko dituzte uhin elektromagnetiko horiek. Seinaleok kortez bisualera joango dira, eta horrek ikusitakoa interpretatuko du.

Ikusminik sortzen dute telekomunikazioek?

Tesiaz galdetuta, eta izenburua esatean, sortu du ikusminik bai. Telekomunikazioa misterioz betetako kutxa dela uste dugun arren, oinarrian oso sinplea da. Ez da mundu magiko eta misteriotsua, zientzia desmitifikatu egin behar da; ez litzateke horren arrotza edo tabua izan behar. Egunerokoan erabiltzen dugu, eta gizartearen zein munduaren zati da. Bizitza ikasgai transbertsala da; hortaz, gehiago jabetu beharko ginateke.

Donibane Lohitzuneko eta Zuricheko jaialdietan saridun

Sari bana jaso dute Durangaldeko sortzaileen 'Pikadero' eta 'Un otoño sin Berlín' filmek Donibane Lohitzuneko eta Zuricheko zinema jaialdietan

> ZINEMA Itsaso Esteban

Donibane Lohitzuneko eta Zuricheko nazioarteko zinema jaialdietatik sari banagaz bueltatu dira *Pikadero* eta *Un otoño sin Berlín* filmen ordezkariak.

Ben Sharrock eskoziarrak zuzendu eta Irune Gurtubai elorriarrak ekoitzi duten *Pikadero* filmak kritikaren saria jaso du Zuricheko zinema jaialdiaren hamaikagarren edizioan. Lara Izagirre zornotzarraren lehengo film luzeari, *Un otoño sin Berlín* filmeari, berriz, film luze onenaren saria eman dio epaimahai gazteak, Donibane Lohitzuneko zinema jaialdiaren bigarren edizioan.

Zuzendari gazteek euren belaunaldiaren bizipenen inguruan sortutako filmak dira bi saridunak

Irailen Donostiako Zinemaldiak hartu zituen zinegile gazte horien lanen estreinaldiak. Aipamen berezia jaso zuen *Un otoño sin Berlín* filmak Euskal Zinemaren Irizar sariketan, eta sail horren barruan eman zuten *Pikadero* ere. Donostian abiatu zuten euren lana beste hainbat zinema jaialditan erakustera eramango dituen bidaia hau.

Durangaldeko paisaien eta eskualdeko hainbat sortzaileen lanaren isla dira *Pikadero* eta *Un otoño sin Berlín*. Zuzendari gazteek euren belaunaldiaren eta inguratzen dituen errealtatearen ganean sortutakoak. Barbara Goenagak eta Joseba Usabiagak dihardute *Pikadero* filmean aktore nagusi lanetan, eta, esan bezala, Durangaldeko paisaia ezagunak dira euren maitasun istorioaren hondoa. Izan ere, Irune Gurtubai Elorrioko zinegile gazteak ekoitzirikoa da filma. Aktore taldean

Mariano Estudillo durangarra, eta muntaiaren arduradun Ibai Elorza berritzarra izan ditu, bestalde, Izagirrerren filmak.

Izagirrerena, Zornotzan

Urriaren 21, 22, 24, 25 eta 27an, Zornotza Aretoan emango dute *Un Otoño sin Berlín*, zornotzarrentzat doan. Izan ere, Zornotzan grabatu zuen Lara Izagirrek filma, eta herrikideei esker eman gura dizkie horrela.



Sharrock, 'Pikadero' filmaren zuzendaria, Zurichen, saria jasotzen.



Epaimahai gaztearen saria jaso du Lara Izagirre 'Un Otoño sin Berlín' filmaren zuzendariak, Donibane Lohitzunen.

Azokan lan boluntarioa egiteko eskaintza berria

Durangoko Azokan boluntario jarduteko aukera

> AZOKA I. E.

Abenduaren 4tik 8ra Durangon egingo den Azokan boluntario moduan jarduteko eskaintza luzatu dute, aurreko, lehenengoz. Lan administratiboan —akreditazioak banatzen, liburu eta diskoen sailkapenak egiten...—, arlo teknikoan —aparkalekuan zaintza egiten, azokaren irekiera eta itxierak egiten— zein komunikazio arloan jardun ahalko dira, urriaren 31 baino lehen izena ematen duten boluntarioak.

Durangoko Azokak 50. urteurrena ospatuko du aurreko, eta "Azoka barru-barrutik ezagutzeko" aukera moduan eskaini dute boluntariotza. Antolakuntza taldeko kide izanik, Azokaren bueltako kultur ekitaldiak barrutik biziko dituzte boluntarioek, eta euskal kulturgintzako sortzaile eta eragileekin harremana izan ahalko dute. Hiruzpalau orduko txandak beteko dituzte boluntarioek.

Azokaren webgunean (www.durangokoazoka.eus) eman daiteke izena, bertan eskegi duten galdetegia beteta. Izena emateko, euskaraz komunikatzeko gai izatea eta 18 urtetik gorakoa izatea dira baldintzak.

Urriaren 31 baino lehen eman behar da izena, Azokaren webguneko galdetegia beteta

Durangoko Azokak "barrutik" ezagutzeko aukera eskaini gura die izena ematen dutenei

Azokak ateak zabaltu aurretik, izena ematen dutenekin harremanetan jarriko da koordinazio taldea.

'Barbantxo' antzezlanari buruzko aplikazioa aurkeztu du Logelak

Urriaren 23an, Berrizen eskainiko du Logela Multimedia 'Barbantxo'

> ANTZERKIA I. E.

Datorren barikuan, urriaren 23an, emanaldi bi izango ditu Logela Multimedia Elorrioko taldeak, Durangaldean. Batetik, iaz aurkeztu zuten *Barbantxo* umeentzako antzezlan multimedia aurkeztuko dute, Berrizen. Istorio ezagun bat, forma eszeniko berrien bitartez eskaintzen du Logelak ikuskizun honetan; *mapping* teknika, musika, kan-

tuak eta 3D proiektzioak baliatzen dituzte. Kultur Etxean izango da emanaldia, 18:00etan, eta nobedade bat aurkeztuko dute, gainera: *Barbantxo* 3D ipuin interaktiboa. Gailu mugikorretan instalatzeko aplikazioa da, eta www.barbantxo.com webgunean deskargatu daiteke. Ikusentzunezko efektuekin jolastu, eta ipuina entzun edo irakurri daiteke aplikazio horren bidez.

Gainera, 3D betaurrekoak modu errazean egiteko gida ere eskaintzen du Logela Multimedia aplikazio horretan.

Bestalde, urriaren 23an, baita, *Divenire* ikuskizuna eskainiko dute, 21:00etan, Zornotza Aretoan. Logela Multimedia taldeko Imanol Garaizabalen irudiak Circle Of Trust taldeko dantzarien mugimenduekin uztartuko dituzte emanaldian.



Istoria ezagun bat, forma eszeniko berrien bitartez eskaintzen du Logelak ikuskizun honetan.

Silboberrik hiru obra estreinatuko ditu, bihar, Donostian

San Telmo Museoan joko dute Silboberriko kideek

> MUSIKA Itsaso Esteban

Donostiako San Telmo Museoan egiten duten Musikagileak zikloaren barruan ariko dira Durangoko Silboberri txistu taldeko kideak, bihar, 20:00etan hasiko den kontzertuan. Aitor Amilibia txistulariak, Jose Antonio Hontoria akordeoilariak eta Elur Arrieta perkusionistak eskainiko dute txisturako hiru konposizio berriren estreinaldi hori, San Telmon.

Luis de Pablo musikagile bilbotarraren txistu eta dantbolinerako *Divertimento* obra estreinatuko dute, batetik. Afganistango melodia bat oinarri duen sorkuntza da De Pablarena, txisturako sortu duen lehen lana. Carlos Villasolek txistugaz eta akordeoiagaz jotzeko sortu duen *Pequeñas moscas de mis soles negros* izeneko pieza ere estreinatuko dute, bestalde.

Hirugarren estreinaldia, *Eziñeruntz* izeneko obrarena izango da. Felix Ibarrondok txisturako sortu duen lehen konposizioa da. Hau ere, txistugaz eta akordeoiagaz jotzeko pentsaturikoa.

Txisturako konposizio berriak bultzatzea da Silboberri elkartearen helburu nagusia, eta lan horren erakusle izango da, bihar, Donostian eskainiko duten kontzertua. Txistua bezalako antzinako instrumentu baten sonoritatea noraino zabaldu dezaketen erakutsiko dute kontzertuan, musikari birtuosoek. "Entzulea harritu" gura dute.

Hiru estreinaldi horiez gainera, beste lau obragaz osatuko du Silboberrik Donostiako kontzertua. Tomas Aragües, Gabriel Erkoreka, Felix Ibarrondo, eta David Cantalejorenak dira.

Urriaren 24an, bestalde, Duragoko San Fausto jaietako ohi-



Txistugaz eta akordeoiagaz jotzeko sorturikoak dira estrenaldiko obretako bi.

ko kontzertua emango du Silboberrik. Landakogunean ariko dira txistulariak, 20:00etan hasita, Ganbara abesbatzak, eta

Olatz eta L'Atelier taldeetako dantzariak lagunduta. Jabier Ituarte jardungo da emanaldia- ren zuzendari lanetan.

García Antonen lanen erakusketa, Berrizen

Azaroaren 1era arte egongo da erakusketa zabalik

> PINTURA

Gaurtik azaroaren 1era arte egongo da Jose Alonso García Anton margolariaren lanaren erakusketa ikusgai, Berrizko kultur etxean. Guadalajaran (Espainia) jaio zen, eta 64 urte zituela, Berrizen hil zen margolaria, pasa den ekainaren 16an. Erakusketa honegaz, omenaldia egin gura diote García Antoni, eta bere lanak bizirik jarrai dezan lagundu.

Umetan, Eibarren bizi izan zen Jose Alonso García Anton, eta han jaso zituen margolari-tzari buruzko klaseak. Hortik aurrerakoan, bere kasa ikasi

zuen, eta inpresionismoa zuen gogoko. Azken urteetan, hainbat lekutan egon zen bere pintura lana ikusgai.

Berrizen, astegunetan, 18:30etik 20:30era egongo da pintura erakusketa zabalik, eta, asteburuetan, Kultur Etxean jarduerak dauden orduategian ere egongo da ikusteko aukera.

Erakusketa honegaz, omenaldia egin gura diote, ekainean Berrizen hil zen margolariari

Argazki erreportajeez, García Roderogaz

Cristina García Roderogaz, ikastaroa, Elorrion

> ARGAZKIGINTZA

Erreportari baten sortze prozesua izenburuko ikastaroa eskainiko du Cristina García Rodero (1949, Poertollano, Espainia) argazkilariak, Elorrion. Azaroaren 28 eta 29an, Iturri kultur etxean egingo dituzte ikastaroaren bi saioak.

Zabalik dago bi eguneko ikastaro horren izen-ematea: elorrifoto@gmail.com helbidera izen-abizenak, telefono zenbakia eta posta elektronikoko helbidea bidali behar dira izena emateko. Hamabost orduko ikastaroa izango da, eta 100 eurokoa da matrikularen prezioa.

Izena ematen duten argazkizaleekin bere esperientzia partekatzea dator García Rodero, Elorrio Photo taldeak gonbidatuta. Argazkilari espainiarrak hamarkadak daramatza munduan zehar argazki erreportajeak egiten, eta Magnum Photos argazkilarien kooperatibako kidea da, 2009tik.

'Erreportari baten sortze prozesua' izeneko ikastaroa emango du García Roderok, Iturri

GEURE DURANGALDEA

LIBE MIMENZA

Kazetaria



Elkarlanean, kulturgintza

Egunak 24 ordu ditu, asteak 7 egun. Denontzat. Lotarako zortzi ordu, lanerako bost egun. Neuretzat. Gaintze-koa, funtzio organikoa kenduta geratzen den apurra, aisia. Horixe da zutabe hau idazteko tenorea.

Astero, zeuregana, agenda txiki-handi-zabal-estua zukututa dator Anbotoko kolaboratzaileon letra zukua. 1.500 karakteretan gutako bakoitzak berea: aldika gazia, apika geza. Edonola ere, kariñoa da denon lanabesa.

Musutruk dihardugu hemen. Debalde euskalgintzan. Doakoa behar du kulturak. Euskarak, sarri, ez dauka preziorik; kontsumoak ez baitu eragiten presiorik.

Hemen, elkarlanak egiten gaitu herri. Bakoitzak berea jartzen du soron: denbora, ideiak, dirua, eskuak... Euskaldunok asmatu ditugu *crowdfunding* eta *crowdsourcing*. Terminoa anglosaxoiek dakarte azken aldian bedainkapena; guk, aise, eutsiko diogu tradizioari.

Zer da, bada, borondatezko lana? Ahuldade, aiene, bizi-rautearen izurrite? Edo, hala ere, uzta oparoaren indar, adore, bizitzaren birsortze?

Kulturan, herritarron borondatezko lanari zor diogu ekoizpenaren hazia. Enbrioiaren ernamuina halaxe agertzen da agertokira: mimoz eta sosik espero gabe landatua. Horrela, aleak heldu, eta mende erdian onduta dator; aurten, Durangoko Azoka. Estreina-koz, bere tripak ezagutu eta bere bihotza arakatzeko aukera izango dugu, hain zuzen, boluntario jardunda. "Boluntarioria programa" du www.durangokoazoka.eus webgunean izena: elkarlanaren kultura; elkarlanean, kulturgintza.

Durango Kafe Antzokia www.plateruena.net
 Landako etorbidea, 4A | 48200 Durango | Tel.: 946 030 300

JAT ETX EA
EGUNEKO MENUA
 IGANDEETAN MENU BEREZIAK

Pub Quiz 6
 Friday 23rd October, 9.30 pm
 Plateruena-Antzokia in Durango

URRIAK 23
 21:15etan
DURANGO'S PUB QUIZ
 LEHIAKETA

URRIAK 25
 18:00etan
KANTALDIA
 KANTALDIA

URRIAK 28
 19:00etan
PLATERUENAREN URTEURRENA
 JAIALDIA

Kreditua
 Tanttaka Teatroa


Urriaren 25ean
 19:00etan

Sanagustinalde, 12
 Tel.: 946 030 021
sanagustin@durango-udala.net

San Agustin KULTUR GUNEa
 DURANGOKO UDALA

BERETEK

ARKITEKTO TEKNIKOEN BULEGOA



- Jarduera proiektuak
- Eraikinen patologia txostenak
- Peritazioak
- Legeztapenak
- Birgaitze eta berrizteak
- Obra berriak
- Proiektuak
- Obren zuzendaritza
- Obren gauzatze zuzendaritza
- Hirigintza
- EIT-ITE Eraikinen ikuskapen teknikoak
- EET-IEE Eraikinen ebaluazio txostenak
- EEK-CEE Eraikinen energia kalifikazioak
- Aurrekontuak, neurketak, zuinketak.
- Andamiatzeak
- Kalitate kontrola
- Igogailuak eta plataforma jasotzaileak

Tel.: 666 025 143 / 946 812 700

Ibaizabal auzunea, 5 zkia behea · 48200 Durango (Bizkaia) · endikaberetek@gmail.com · www.beretek.es

Jon Montero (Abadiño, 1981) | 'Arraigo' ikuskizuna sortu du Pedro Lanus kideagaz

“Magikoa da kantok eskaintzea eta jendea adi-adi entzuten sentitzea”

Lanusen gitarra lagun, 'Al alba' eta 'Goizuetan' kanten bertsioak kantatzen ditu, besteak beste, Monterok

> MUSIKA Itsaso Esteban

Pedro Lanus argentinarrazagaz diharduzu azken aldian. Zelan sortu da elkarlan hori?

Urtebete inguru da elkartu gine-la, eta bikote moduan aritu gara azkenaldian, ni kantuan eta bera gitarragaz. Pedro argentinarra da, Matienan denda bat zeukan, eta, egun batean, musikaren inguruan berbetan hasi ginen. Zerbait egiteko gogo sortu zitzaigun, eta jotzeko elkartu ginen hurrengo.

Musika arloan gaztetatik ibilitakoa zara.

Bai, Psyc taldean jotzen nuen. Heavya, punka, eta hardcorea egiten genuen. Baina taberna daukat Matienan, eta denbora faltagatik utzi nuen musika. Denbora batez musikatik aparte ibili eta gero, orain lau urte inguru ekin nion berriro. Pedro ere punk taldeetan ibilitakoa da, jaioterrian, Argentinan.

Bihar, urriaren 17an, Durangoko Misarbe tabernan joko duzue. Zelakoa izango da kontzertua?

Pedrok gitarra joko du, eta hiru-lau abestitan, gurekin jotzen hasi den Alex Garcia gaztea ere ariko da. Rantxerak, tangoak... Kanta ezagunak, betikoak eskainiko ditugu, betiere, geuk lan-

dutako bertsioan: *Al alba*, *Gallo rojo gallo negro*, *La llorona*, *Maria la portuguesa*, *La bien pagá*, edo Mikel Laboaren *Goizuetan*, esaterako. Pedro argentinarra da, eta, gitarra jotzerakoan, bestelako ukitua ematen die kantei. *Maria la portuguesa*, esaterako, tango moduan jotzen du berak, ez kopla moduan. Egiten dugunak flamenko ukitua daukala ere esan izan digute...

Jatorri andaluziarra duzu? Nondik datorkizu kantakeran ukitu flamenko hori?

Ez dakit nondik datorkidan... Ez dut sekula horrelako musika entzun izan, baina deskubritu dut, lantzen hasi, eta oso gustura nabil. Ez daukat sustrai flamenkorik inondik ere —ni hemen jaiotakoa naiz, ama Extremadurakoa da, eta aitaren gurasoak Salamancakoak—, baina ukitu horregaz ateratzen zait ahotsa kanta hauek abestean.

Zerk eroan zaituzte estilo berri hauetara?

Adinak ere bai, beharbada. Lehen ezagutzen ez nituen gauzetara hurbildu naiz, eta ohartu naiz, kantatzerakoan, sentimendu handiagoa sortzen didala. Mundu berri bat zabaldu zait. Aurkikuntza izan da; lehen ez



Gaztetan, Psyc musika taldeetan aritutakoa da Jon Montero.

nuen musika mota hau entzun ere egiten. *Al albaren* gure bertsioa, esaterako, ahapeka moduan hasten naiz kantatzen, eta egiten duzuna asko sentitzea eskatzen du horrek. Egiten duzun musika estiloa edozein delarik ere, ezinbestekoa da sentimendua, zentzua izan dezan.

Zelan joan da zabaltzen zuen erreperitorioa?

Berez joan gara kanta zerrenda osatzen. Hiru orduko kontzertu baterako erreperitorioa daukagu, gutxi gorabehera. Kantak bilatzen eta aukeratzen oso gustura ibiltzen gara, eta baita mol-daketak egiten ere. Orain, adibidez, lo-kanta frantses bat prestatzen gabiltza. Sehaska kantak musika herrikoiaren adibide ederra direla uste dugu, eta gure erreperitorioan horrelako gehiago sartzeko asmoa daukagu. Bestalde, momentuz, euskarazko kanta bakarra jotzen badugu ere, asmoa daukagu euskarazko kanten bertsio gehiago egiteko.

Zelakoa izaten da bertsioak sortzeko prozesu hori?

Batzuetan, berez ateratzen dira, eta, beste batzuetan, hilabeteak ematen ditugu lanean.

Baduzu erreperitorioan kanta kuttunen bat?

Hernandez Ferlosio anarkista eta errepublikazalearen *Gallo rojo gallo negro* gustatzen zait gehien. Pedrorentzat, bestalde, Mercedes Sosaren *Lunita tucumana* da bereziena.

Zelako harrera egin dizute jo duzuen lekuetan?

Oso pozik gaude jendearen har-reragaz. Matienako Errota kultur etxekoa oso berezia izan zen, esaterako. Ehun lagun inguru etorri ziren entzutera. Espero genuen adin batetik gorako jende batek gustukoa izatea gure proposamena, baina gehiago harritu gaitu, batzuetan kanta batzuk ezagutu ere egin barik, gazteek zeinen ondo hartu gaituzten kontzertuetan.

Taldean instrumentu berriak sartzeko asmoa daukazue?

Bai, taldean instrumentu tradizional batzuk sartzea nahi genuke, edo behintzat, beste musikari batzuk gonbidatzea kanta zehatz batzuk jotzera: trikitilari bat eta biolontxelistak bat topatu gura dugu, esaterako.

Erraza egingo zaizue musikari horiekin kontaktua egitea? Musikari asko daukazu inguruan?

Bai, musikariak ditut lagun gehienak. Modu batera edo bestera, beti nabil giro horretan.

Zer asmo eta helburu duzue etorkizunerako?

Inguruko herrietako kultur etxeetan jo ahal izateko, eskaintza zabaltzen gabiltza, izan ere, zuzenean aritzea da gehien gustatzen zaiguna. Magikoa da jendaurrean kantok eskaintzea, eta jendea adi-adi entzuten sentitzea. *La lloronagaz*, esaterako, ikusten duzu jendea tentsioan dagoela, eragiten diozula.



Pedro Lanus argentinarrazagaz gitarraren erritmora kantatzen du Monterok. Usue Martinez



Montero Traña-Matienako kontzertuan, kantuan. Usue Martinez

Iñaki, Pedro Mari eta Gotzon Garcia | Puntistak, 'Garita' aita-semeak

“Ezkurdin hazi ginen, eta hemen egin dugu bizitza osoa”

Zesta-puntaren munduko saga mitikoetako bat osatzen dute 'Garita' aita-seme durangarrek



Ezkurdiko kantxan, Iñaki, Pedro Mari eta Gotzon Garcia aita-semeak. Lehiar Elorriaga

> ZESTA-PUNTA **Markel Onaindia**
60ko hamarkadan jo zituen lehen pilotakadak Pedro Mari Garciak (Zaldibar, 1950). 'Garita' lez egin zen ezagun, eta Amerikako Estatu Batuetara joateko aukera eduki zuen. Han jaio ziren Gotzon (1977) eta Iñaki (1981), eta umeetatik barneratu zuten zesta-puntarekiko zaletasuna. Gerora, eurek ere 'Garita' bihurtu ziren, eta aitaren bide profesionalari jarraituta, Amerikara bidaia ere egin zuten. Iñaki profesional mailan dabil oraindik, eta itsasoz bestaldeko geldialdi bat aprobetxatuta, San Fausto jailetako txapelketan parte hartu du Goikoetxea handiagaz batera. Ezkurdi pilotalekuan errotutako familia dela ikusi ahal izan da jaialdian zehar; Iñaki zuriz jantzita, Gotzon garaikurren mahaia kantxara ateratzen laguntzen, eta Pedro Mari tabernan, beharrean. Lanak amaitu ostean hasi dira kazetariaren sakeei errestoa ematen.

Iñaki, pena izan da San Fausto txapelketako finala galtzea, ezta?

Iñaki: Durangon jokatu, jaietan, lagunak etorri dira, andrea-eta ere etorri dira Berriatutik. Pena izan da, bai. Azkenean,

ezin izan da; galdu egin dugu, eta ez diogu beste bueltarik emango ez daukanari.

Edozelan ere, Ezkurdin jokatzeari berezia izango da zuretzat, ezta?

Iñaki: Bai. Orain dela zortzi urtetik, ez dut jokatu partidurik ofizialik hemen. Finalerdia urduri jokatu nuen, osorik, eta gaur [martitzenagatik], lasaiago jokatu arren, galdu egin dut. Zailagoa ere izan da, baina...

Pedro Mari, zu al zara familiako lehen puntista?

Pedro Mari: Nire aurretik lehengusu batek jokatu zuen. Bera ikusita hasi nintzen jokatzeko, bere zesta batez. 16 urteagaz Kanariar Irletara joan nintzen jokatzeko; hemengo asko egon ziren sasoi hartan, Las Palmasen. Handik etorri, eta Durangon, Bilbon eta Zaragozan (Aragoi, Espainia) jokatu nuen. Gero, Amerikara joan nintzen.

Zenbat denbora egin zenuen han, AEBetan?

Pedro Mari: 19 urteagaz joan nintzen, eta 38gaz bueltatu. Gotzon Hartforden jaio zen, iparraldean, eta Iñaki, Miamin.

“
Kontua da ez dela kirol huts bat galtzen ari garena, gure kulturaren zatitxo bat baizik”

Gotzon, txikitatik izan zara puntista, ezta?

Gotzon: Txiki-txikitatik ibili izan ginen frontoian. 5 urteagaz Euskal Herrira etorri, eta laster hasi nintzen zesta jokatzeko. 30 bat urte eman ditut jokatzeko; profesionaletan debutatzeko aukera eduki, eta Orlandora joan nintzen. Gero, berriro hemen ibili nintzen, eta profesional izateari orain bost bat urte utzi nion. Geroztik, afizionatu moduan ibili naiz, eta aurtengo Gabonetan utzi nuen. Sarritan pentsatu dut uztea, baina “pikatu” eta bueltatu izan naiz. Gazteentzako lekua ere utzi behar da! [barrez].

Iñaki, 7 urteagaz hasi zinen zesta, baina gaztetan utzi egin zenuen...

Iñaki: Saskibaloiaz bateratzen nuen, baina 15 urteagaz utzi egin nuen. Estatu osoko jokalariek prestatzeko talde bat sortu zen Getxon, eta handik EBA Ligako talde batera joan nintzen, Santanderrera (Kantabria, Espainia). Urte bat egin, eta Tabirakora bueltatu nintzen. 2005ean berriro ekin nion zestari, eta 2008an Amerikara joatea proposatu zidaten. Han debutatu nuen profesional moduan, eta gaur arte.

Zerk bultzatu zintuen AEBetara joateko erabakia hartzera?

Iñaki: Hemen lanean nengoen, baina krisi famatu hori sartu zen, eta behintzat, urtebeterako proba egitea erabaki genuen. Umeak ere han jaio dira, eta esperientzia nahiko ona izan da. Hemen gusturago nengoke, baina ez daukat hango bizimodua. Laster berriro joango gara, baina ez da epe luzerako izango.

Ezkurdin hezi zarete puntista moduan. Zer da zuentzat frontoi hau?

Iñaki: Zerbait berezia da niretzat, etxean bezala sentitzen naiz. Gainera, kanpoan egonda, hona etortzen naizenean, horixe sentitzen dut beti.

Gotzon: Ezkurdin hazi ginen, eta hemen egin dugu bizitza osoa. Gainera, gaztetatik etortzen ginen afizionatueta partidu guztiak ikustera, eta profesionaletakoak zeudenean ere bai, eguazten eta zapatu gauetan. Markagailuan egoten ginen, epaile lana egiten... Bizitza hemen egin dugu.

Gainera, aitak eduki du zesta klubaren ardura, eta tabernan ere bera egoten da...

Pedro Mari: Dagoeneko, hogeitabat urte edo izango dira hemen nagoenetik. Klubean hasi eta horregatik hartu nuen taberna. Oraindik ere neuk eramaten dut kluba. Nagusiak bospasei dabilta, eta 8-9 urtekoak hasiko dira aste honetan.

Gotzon: Aita beti ibili da pilotalekuan, horrela egin du bizimodua.

Ezkurdi pilotaleku garrantzitsua izan da zesta munduan, baina orain ez da hainbeste festibal egiten. Pena sentitzen duzue?

Pedro Mari: Aspaldian ez dute partidurik ipini. San Fausto egunez jendea etorri da, baina, bestela, jendea ez da etortzen pilotalekura.

Gotzon: Kontua da ez dela kirol huts bat galtzen ari garena, gure kulturaren zatitxo bat baizik. Beti entzun izan dut gure aitaren sasoiaren jendea zutunik egoten zela, KAS kaxen gainean! Baina nik ez dut hori ezagutu. Pilotalekuak beteta ikusi ditut, baina hutsik ere bai. Eta hori ez da batere polita. Zeinek daukan errua? Bada, denok apur bat, seguruenik. Instituzioek-eta zerbait egin behar dutela? Bai, baina denok ipini behar dugu zerbait. Propaganda ona eginez gero, ikusi da zelako giro polita egon den herriko jaietan.

Eneritz Iturriaga emakumezko talde berri bateko zuzendari

Elkar Kirolak elkarteak emakumezko talde berria atera du, eta Eneritz Iturriaga abadiñarra izango da zuzendaria estreinako denboraldian



Eneritz Iturriaga eta Elkar Kirolak elkarteak aurkezpenean. Elkar Kirolak

> TXIRRINDULARITZA J.D.

Iaz BZK taldeko zuzendari lanean ibili ostean, aurtun, Elkar Kirolak taldearen proiektu berriko gidaria izango da txirrindulari ohi abadiñarra. Elkar Kirolak elkarteak Berango, Erandio eta Leioako txirrindulariak batzen ditu. Emakumezko talde berriarekin, kadete mailatik nagusietara arteko kate osoa izango dute: kadete, junior, 23 azpiko eta nagusien taldeak.

Iturriagak Humberto Gomezekin batera gidatuko du taldea. Iturriagak adierazi duenez, bera

izan zen Elkar Kirolak elkartearen taldea sortzeko ideia proposatu ziona: "Urte gogorra igaro dugu, eta neskak oraindik egin gabe heldzen zirela ikusi dugu. Hezi egin behar direla, eta erakutsi egin behar diegula ikusi genuen. Gai pertsonalak tarteko, ez jarraitzea pentsatu genuen, baina, azken orduan, Baque enpresako Mariaren bidez, Elkar Kirolakekin hartuemanetan jarri, eta adostasunera heldu ginen".

Apurka-apurka joan nahi dute: "Behinena, taldea sendotzea da. Hutsetik hasiko gara, eta ez

dakigu noraino heldu gaitzekkeen. Iraganean, horrela egin dugu aurreko talde denetan eta, orain arte, esperientzia arrakastatsuak izan dira. Hau ere horrelakoa izango dela espero dugu". Estreinako denboraldian, estatu mailako lasterketak (Euskaldun Torneoa eta Espainiako Kop) lehiatuko dituzte, eta ez dira nazioartera irtengo: "Egongo da horretarako denbora, maila ona hartzen badugu".

Taldeak 17 txirrindulari izango ditu, baina oraindik ez dituzte izenak jakinarazi.

Donibane Lohitzune eta Berriatua finalean

> ZESTA

Zapatuan, 17:30ean, San Faustto Zesta Txapelketako finalak jokatuko dituzte, Durangoko Ezkurdi Jai Alai pilotalekuan. Berriatuaren eta Donibane Lohitzunen artean dago aurtengo txapela. Aimar Aldazabalek eta Roberto Lekuek osatuko dute Bizkaiko bikotea, eta Jon Tambourindeguyk eta Theo Labordek Ipar Euskal Herrikoa. Berriatuak Durango kanporatu zuen finalerdietan; Donibane Lohitzuneko bikoteak iazko txapeldun Lesbats eta Etcheberryri irabazi zien.

Durangon krosa, eta Urkiolan mendi lasterketa

> KORRIKA

Durangalde Running elkarteak Night Urban Race 5 km-ko krosa antolatuko du urriaren 24an, Durangon, Santa Ana plazatik hasita. 16 urtetik beherakoentzat doakoa da izen-ematea, eta egunean bertan egin daiteke, gurasoek sinatutako baimenarekin. Adin horretatik gorakoentzat 10 euro da alde aurretik (www.kirolprobak.com), eta 15 euro egunean bertan.

ADITUAREN TXOKOA

OIHANA AZKORBEBEITIA

Mendi lasterketak



Udazken koloretan

Udazkena oparora da Durangaldean mendi lasterketei dagokienez. Sorginen lasterketarekin ematen diote hasiera urriari mendi korrikalariak. Aurtun, zortzigarren jokatuta da Sorginena eta, urtero legez, ibilbide paregabea izan dute gozagai. Hasiera eta helmuga Axpen duen lasterketa honek Anboto inguratzen du, eta korrikalariak Mariaren zaintzapean daude uneoro.

Anboto izan da beti Durangaldean mendi erreferentea, eta bere magalean antolatzen dira mendi-txango zein lasterketarik gehienak. Beste adibide bat Anbotoko kilometro bertikala dugu. Hau ere zortzigarren jokatuta da aurtun. Arrazolan gora, ahuntzen antzera, lau hankatan heldzen dira korrikalariak Mariaren eremuetara.

Aurtun, ostera, berrikuntzak dakartza udazkenak Durangaldera. Aurreko mendeko korrikalari apustuzaleen tradizioa gogora ekartzeko asmotan, lasterketa berri bat antolatu dute Durangon, urriaren 25erako. Tabiran hasiko da, GR 229 Mikeldi bidea hartuta. Mendiolatik Atxartera jarraituko du, Atxartetik Guenzelaira, eta Alluitzeko galdara eta horma tenteak ezkerretara utzita, Asuntzera. Asuntzetik Urkiolagirre (1009m) tontorrera igoko dira korrikalariak. Hau da goreneko puntua lasterketan. Hemendik aurrera, jaitsierari ekingo diote. Urkiolan behera, Hiru Kurutzeak eta Txakurzulo atzean utzita, Atxartera helduko dira *apustuzaleak*, galtzadatik, eta hortik aurrera, lehengo bidean behera, Tabiraraino. Oraingoan ere, urrintxotik bada ere, Marik zoli jarraituko die korrikalarien pausoei.

Nesken frontenis maratonia Mallabian

> FRONTENISA

Mallabia kirol taldeak nesken frontenis txapelketa antolatuko du, urriaren 24an. Txapelketa, egun horretan hasi eta amaituko da, Mallabiko pilotalekuan. Horrelako txapelketa bat antolatzen duten lehenengo aldia da, antolatzaileen esanetan.

Udala laguntzaile duen txapelketa binaka jokatuko dute. Bikote irabazleak 60 euro eta garairurra jasoko ditu. Bigarren

saiklatutako bikotearentzat ere egongo da saria: 40 euro eta garairurra.

Izen-ematea hasita

Izen-ematea irekita dago. Kirol taldeko bazkide direnentzat euro bikoia izango da jokalaria bakoitzeko; bazkide ez direnentzat, berriz, lau eurokoa izango da. Parte hartzearen interesa dutenentzat telefono zenbaki bat jarri dute: 669 028 718.

Ibarlozak eta Zapikok irabazi dute Cafes Baqué txapelketa

> PILOTA

Aimar Ibarloza markinarra kadeteetan eta Kimetz Zapiko dimoztarra gazteetan izan dira Cafes Baqué txapelketaren 30. aldiko irabazleak. Durangoko Ezkurdi jai Alai pilotalekuan jokatu ziren finalak, joan zen barikuan.

Kadeteetan, elkar oso ondo ezagutzen duten pilotari bik neurtu zituzten indarrak: Aimar Ibarloza eta Josu Agirre-

maioa markinarrek. Aurtun, Bizkaiko Herri Arteko txapelketa irabazi dute elkarrekin jokatuta. Durangon aurkari izan ziren, eta Ibarlozak 18-11 irabazi zion Agirremaioari. Indarraren legea ezarri zuen, eta tantorik gehienak atzean amaitu zituen.

Gazteetan, partidua gogorra jokatu zuten Kimetz Zapikok eta Iker Kamiruagak. 18na eta 19na berdindu zuten. Azken txanpan, gehiago izan zen Zapiko.

GALLASTEGI

www.gallastegiharategiak.com

1955ean sortua

Baimendutako harategia
Euskal Okela
Carniceria autorizada

Zalduasolo, 8
946 827 038
48250 ZALDIBAR

Antso Estegiz, 1
946 812 247
48200 DURANGO

Eraikuntzarako materiala

MACOBER

Zeramika eta gresa

Eitua industriagunea, 66 BERRIZ
Tel.: 946 827 890 macober@movistar.es



Eman izena boluntario moduan eta parte hartu 50. urteurrenean

2015eko ABENDUAREN 4tik 8ra

DURANGOKO AZOKA 50
KULTURAREN PLAZA



Informazio guztia:
www.durangokoazoka.eus

Tabirakok 5-8 urte artekoen saskibaloia eskola abiatu du

Mutikoak erakartzea da helburu bat, taldeak sortzeko arazoak dituzte eta



Tabi eskolako talde bat, eguaztenean, Jesuitak ikastetxean; Tabirako Baqué taldeetako entrenatzaileak dira monitorea.

> SASKIBALOIA J.D.

Tabirako saskibaloia klubak 5-8 urte artekoen zuzendutako Tabi Eskola abiatu du, lehenengoz. Eskualdeko ikastetxeetako 19

gaztegar hasi dute ibilbidea. Talde bitan banatuta, martitzenean (17:15etik 18:15era) edo eguaztenean (17:00etatik 18:00etara) batzen dira, Jesuitetan.

Ikastetxeetan, 9 urtegar hasien dira saskibaloian jokatzeko. Ordura arte, kirol anitzeko jardunaldiak egiten dituzte. Eskola berriagaz, Tabirakok saski-

baloia umetatik probatzeko aukera eskaintzen du. Udan antolatzen dituzten jardunaldiei jarraipen egonkorra emateko modua izango da: “Udako eskola amaitzean, denboraldian zehar ez genuen antzerako beste ezer eskaintzen, eta urte osoan mantenduko zen zerbait abiatu gura genuen”, adierazi du Ina Mendibere Tabirakoko presidenteak.

Eskolaren helburuetako bat ahalik eta mutikorik gehien erakartzea da. Izan ere, mutiletan gabezia dute. “Kosta egiten zaigu gaztetxo mailako taldeak sortzea”, dio Mendibere. Nesketan, aldiz, kontrakoa gertatzen zaie: “Neskatorik gehienek saskibaloia aukeratzen dute. Sarritan, ‘overbooking’-a izaten dugu. Eskola kirola eta kirol federatua batera hartuta, nesketan kadeteetako sei talde ditugu, eta mutiletan bi bakarrik”. Horrexegatik, mutilak eurenganatzeko saiatuko dira.

Izen-ematea, urte osoan

Izen-ematea urte osoan irekita egongo da, 2007 eta 2010 urteen artean jaiotako neska-mutikoentzat. Honako e-mailaren bitartez egin daiteke: tabi_eskola@tabirako.eus. Hileko prezioa 18 euro da.

Anboto gora, Kortazar eta Osa azkarrenak

Anboto Kilometro Bertikala irabazi dute



Anboto KBko emakumeen eta gizonen podiuma.

> MENDI LASTERKETA

Anboto Kilometro Bertikalean, faboritoak nagusitu ziren: Aitor Osa gizonetan (38.47) eta Oihana Kortazar emakumeetan (48.16). Durangaldeko korrikalariei dagokienez, Oier Ariznabarreta durangarra bigarren izan zen gizonen po-

diumean (40.48). Aitor Ajuria otxandiar gazteak lan bikaina osatu, eta bosgarren amaitu zuen bere lehen parte hartzean: 43.16. Nesken gazte mailan, Aritz Villa abadiñarra izan zen onena, eta Garazi Sampedro atxondoarra emakumeetan 9. sailkatu zen.

plazan batu, eta Udalaitz ingurura joango dira, handik aireatzeko. Normalean, abuztuan egiten dute kontzentrazioa, baina, orduan, hego haize gorrak ekitaldia atzeratzera behartu zuen. Zapatuko hegaldia ere haizearen baitan dago: ipar haizea baldin badago, egingo dute; bestela, ezingo dira aireratu.

Bihar, parapente kontzentrazioa, Elorrion

> PARAPENTEA

Larrano Parapente Taldeak antolatuta, Euskal Herriko 40 bat parapentelari Elorrion batuko dira, zapatuan. 14:00etan

Kartingeko aurreratzetik onenen saria, Urienentzat

Espainiako Karting Txapelketako proba batean parte hartu, eta 11 postu aurreratu zituen

> AUTOMOBILISMOA

“Sei urtean kartingean ibili barik egon ostean, egundoko gogoan nuen berriz probatzeko, eta erraztasunak eskaintzen zizkidatela ikusita, ez nuen birritan pentsatu”. Igor Urienek parentesi txiki bat egin zuen Espainiako Erresistentzia Txapelketan, karting baten bolantean jartzeko. Ezin izan zion tentazioari eutsi, onartu duen moduan. Valentzian izan zen, irail hasieran. Espainiako Karting Txapelketako proba bati atzetik ekin zion, eta 11 postu aurreratu zituen: 16.etik 5.era. Zaleen ustez, denboraldiko igoerarik onena izan da. Atzetik aurrerako biderik ikusgarriena aukeratzeko bozketa ireki batean, Urienek jaso du botorik gehien.

Oroimenean bidaiatu, eta bere hastapenetako denborak gogoratzeko ere balio izan zion proba hark. Baina, aurtengo erronka nagusia Espainiako Erresistentzia Txapelketa du. Renault Clio baten bolantean, orain arte lau lasterketa irabazi ditu: Valentzian eta Madrilen bana, eta Nafarroan bi. Azaroan, Bartzelonan jokatu den

lasterketagaz amaituko du denboraldia.

Europara begira

Datorren denboraldian, bere dohainek merezi duten mailara itzultzeko ahaleginetan dabil: European aritu gura du, turismoen edo GT-en txapelketetan. Orain urte bi, Europa F3 txapelketan aritu zen, baina, iaz, finantziario faltagatik, koska bat jaitsi behar izan zuen, Estatu mailara itzulita. Bere



IGOR URIEN

benetako maila, ordea, European dago: “Pilotu batek mugaraino exijitzen zaiola sentitu behar du, hori da egunetik egunera hobetzeko bidea. Maila hori European dago, profesionalagoa da alde denetatik. Nazionalagoa ez da maila berdina. Maila honestan, gehiago ezin dudala ikasi sentitzen dut”. Datorren denboraldian salto hori emateko finantziario bila dabil.

AGENDA
> FUTBOLA
HIRUGARREN MAILA
Durangoko Kulturala - Santutxu · Zapatuan, 17:00etan, Tabiran.
OHOREZKO MAILA
Elorrio - Apurtuarte · Zapatuan, 16:00etan, Eleizalden.
MAILA GORENA
Abadiño - Galea · Zapatuan, 16:30ean, Astolan.
LEHEN ERREGIONALA
Amorebieta B - Mungia · Domekan, 18:15ean, Txolonen.
Ezkurdi - Arraiz · Zapatuan, 16:30ean, Arripausetan.
BIGARREN ERREGIONALA
Iurretako B - Berriz · Zapatuan, 16:30ean, Larakozelaian.
Zaldia B - La Merced · Zapatuan, 17:00etan, Solobarrian.
> ARETO-FUTBOLA
HIRUGARREN MAILA
Presion Break - Buskantza · Zapatuan, 16:50ean, Elorrion.
Sasikoa Durango-Egintza · Zapatuan, 18:00etan, Landakon.
EUSKAL LIGA
Buskantza B - Oartzun · Zapatuan, 18:00etan, Elorrion.
Sasikoa Durango B - Bakio · Domekan, 12:00etan, Landakon.
LEHEN ERREGIONALA
Elorrio Txiki - Presion Break B · Zapatuan, 16:00etan, Elorrion.
EMAKUMEEN LIGA
Elorrioko Buskantza - Leioa · Domekan, 12:15ean, Elorrion.
> SASKIBALOIA
ZILARREZKO LIGA
Zornotza S.T. - Peixegalego · Zapatuan, 18:30ean, Larrean.
LEHEN MAILA (gizonak)
Tabirako Baqué - Getxo · Zapatuan, 19:00etan, Landakon.
LEHEN ERREGIONAL BEREZIA (gizonak)
Tabirako Baqué - Astrabudua · Zapatuan, 17:00etan, Landakon.
Zornotza - Bidegintza · Domekan, 11:00etan, Larrean.
> ESKUBALOIA
EUSKADIKO TXAPELKETA
Ibaizabal - Askartza · Zapatuan, 16:00etan, Landakon.
> PILOTA
OLAZAR TXAPELKETA
Lau Yerdian:
- Espinal-Arrizabalaga
Binaka:
- Laso-Murgiondo / Bakaikoa-Lasa · Urriak 22, 21:30ean, Zaldibarren.



Ikusmen eta entzumen arazoei irtenbidea bilatzen Landako Optikan

Entzumen arazoak, ikusmen urritasuna eta hainbat arrazoiengatik sortu daitezkeen lesioak lantzen dituzte Durangoko Landako Optikan

> OPTIKA

Landako Optika berritzailea da optometriaren esparruan. Izan ere, ohiko optika denda bateko zerbitzuez gainera, hainbat aukera eskaintzen dituzte. Zerbitzu zabal horren barruan, ikusmen urritasuna duten pertsonen azterketak egiten dizkiete. Bizkaian, ikusmen urritasuna lantzen duten hiruzpalau zentro daude, eta Landako optika da horietako bat. Lourdes Arrizabalaga optometristak dioenez, zerbitzuaren helburua pertsona horrek ikusten duen apurra ahalik eta gehien aprobetxatzea da. Ikusmen urritasuna dutenei laguntzeko, hainbat baliabide erabiltzen dituzte: lupak, filtroak, mikroskopiaok, telemikroskopiaok eta laguntza elektronikoak.

Entzumen azterketa

Landako Optikan entzumena ere lantzen dute. Izan ere, 50 urtetik aurrera, entzumena urtero

aztertzea gomendatzen dute adituek. Izan ere, osasun arazo ohikoena entzumenaren galera da. Hala ere, biztanleriaren %50ek ez du ezelango azterketarik egiten. Landako Optikan, entzumen azterketa egiterakoan, entzumena sano dagoen ziurtatzeko probak egiten dira, infekzioz ez dagoela egiaztatzeko. Gero, entzumen ataria zein den ezagutzeko probak egiten dira. Ondoren, aztertutako pertsonak entzumenean galeraren bat duen baloratzen da. Galera hori arintzeko gehien erabiltzen den gailua audifonoa da. Arlo horretan, teknologia aurrerapauso handiak eman ditu azken urteotan. Era berean, zarata handia dagoen lantegietarako, gailu bereziak eta bainurako tapoiak neurritza egiten dira.

Begien terapia

Sarritan, gaztetxoek egoki gartzten dute ahozko hizkuntza, baina, hala ere, ikasteko eta irakur-

tzeko arazoak izaten dituzte. Kasu askotan, arazo horien atzean ikusmen arazoren bat egoten da. Lehen Hezkuntzako bigarren mailan, umeak irakurtzen ikasten hasten direnean agertzen dira lehenengo seinaleak. Arazoren bat detektatzen den kasuetan, begien terapiara jotzea aholkatzen dute, dagokion tratamenduarekin arazoa konpontzeko. Landako optikako profesionalak begien azterketa egiten dute lehenik eta behin. Begien mugikortasuna, fusioa eta egokiera aztertzen dituzte. "Azterketa egin eta gero, tratamendu pertsonalizatuak ematen ditugu", adierazi du Maider Llanos optikako arduradunak.

Kasu gehienetan, gainera, arazoak konpondu egiten dira, hiru hilabete inguruan, astean egun batez, optikan ariketak eginez gero, eta etxean ere arazoak lantzen bada. Ariketa horiek begi alferra eta estrabismoa konpontzeko ere balio dute.

LANDAKO OPTIKA

GRADUAZIOAK
BEGIEN AZTERKETA
UMEEN OPTOMETRIA
BEGIEN TERAPIA
UKIPEN LENTEAK
TONOMETRIAK
TOPOGRAFIK
IKUSMEN URRITASUNA
AUDIOLOGIA
OSASUN OKULARREAN
ESPEZIALISTAK

Juan Mari Altuna, 22
DURANGO
Tel.: 946 814 999
optika@landakooptika.com
landakooptika



Inmobiliariak

AMBOTO
INMOBILIARIA
Sanagustinalde, 4 - 1 ezk. • 48200 DURANGO

ISD Inmobiliaria
del Duranguesado
Askatasun etorb. 10 • DURANGO • 946 816 666
www.inmoduranguesado.com
inmoduranguesado@gmail.com

AGENCIA INMOBILIARIA
Fernando Uribe
Barrenkalea, 15 behea • 946 816 423
48200 DURANGO • Bizkaia

ETXETXO
G. INMOBILIARIA
F.J. Zumarraga, 11 - 946 814 049 • DURANGO
www.inmoetxetxo.com

ETXEBIZITZAK ALOKAIUAN

- DURANGO: 1, 2 eta 3 logelako etxebizitzak alokagai. 575€-tik aurrera.

ETXEBIZITZAK SALGAI

DURANGO

- TABIRAKALEA: 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Etxe osoa kanpora begira. Garaje itxia.
- MIKELDI: 3 logela, sukaldea balkoiarekin, 2 komun eta egongela. Ganbara eta garajea. Berriztatua.
- FRANZISKO IBARRA: 4 logela, 2 komun, sukaldea, despentsa eta egongela balkoiarekin.
- MURUETA TORRE: 3 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela balkoiarekin. Garajea eta trastelekua.
- KALEBARRIA: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. 120.000€.
- ARTEKALE: 8 etxebizitza eraikitzen. Logela 1 eta 2koak. Trastelekuarekin. 128.000€-tik aurrera.
- ERDIALDEAN: 123 m2. Etxe osoak kanpora ematen du. Berriztatuko. Zonalde onean kokatua.
- ATIKO BERRIA ESTREINATZEKO. 2 logela, 2 komun eta sukalde amerikarra eta egongela. Garaje itxia eta terraza izugarriak.

ATXONDO

- 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Etxe osoak kanpora ematen du. 3 balkoi. Garaje itxia.
- 3 logela, 2 komun, sukaldea eskegitokiarekin eta egongela. Etxe osoak kanpora ematen du. Garajea eta trastelekua. Berria ematen du.

LEKEITIO

- 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela terrazarekin. Garajea. Auzune pribatua. Igerilekua eta frontoia.

ABADIÑO

- ITURRITXO: Logela bakarreko apartamentua. Sukalde amerikarra-egongela, komuna eta eskegitokia. Ganbara, garaje bikoitza eta trastelekua.

ZALDIBAR

- 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela balkoiarekin. Guztiz berriztatua. Trastelekua.

LUR SAILAK SALGAI

ABADIÑO

- Bifamiliarra eraikitzeko 1.000 m2-ko lursaila salgai. Zonalde egokia.

BERRIZ

- 10.000 m2-ko lursaila. Sarbide ona.

IURRETA

- 5 hektareako lursaila. Abeletxe bat egiteko aukera dago.

ABADIÑO

- Bifamiliarra eraikitzeko 1.100 m2-ko lursaila salgai. Informazio pertsonalizatua.

EUBA

- 3000 m2 eta 3.455 m2-ko lursailak. 2 lurzati bakoitzean bifamiliarra eraikitzeko aukerarekin.

ZORNOTZA

- LARREA: 27.000 m2-ko lursaila.

BASERRIAK ETA TXALETAK SALGAI

- ABADIÑO: Gaztelua. Baserría. Arku zoragarria dauka sarreran. 20.000 m2-ko lursaila baserri ondoan.
- BERRIZ: 1.200 m2-ko lursailan kokatutako txaleta, Abeltxe kalean. 4 logela, 3 komun, sukaldea eta egongela. Garajea.
- ATXONDO: Martza auzoan. 15.000 m2-ko lursaila. Teilatu berria. Zonalde ikusgarria.

ETXEBIZITZAK SALGAI

ERRETENTXU 130.000€



- 73 m2. Logela 2, komuna, bainugela, egongela, sukaldea eta eskegitokia. Berogailua. Igogailua.

PINONDO 195.000€ / Negoziagarria



- 67 m2. Ikuspegi ederrak. Etxe osoa kalera begira. 3 logela, egongela, sukalde jantzia eta komuna. Berogailua. Igogailua.

ASKATASUN ETORBIDEA 159.000€



- 3 logela, egongela, sukalde jantzia, despentsa eta komuna. Igogailua.

KURUTZIAGA 125.000€ / Negoziagarria



- 3 logela, sukalde-egongela eta komuna. Balkoia. Ganbara. Berogailua. Igogailua.

ASKATASUN ETORBIDEA 210.000€



- 2 logela, egongela, sukalde jantzia eta komuna. Guztiz berriztatua. Igogailua.

www.inmoduranguesado.com

ETXEBIZITZAK SALGAI

- ANDRA MARIA: Halla, sukaldea, jangela, egongela, 2/4 logela eta 2 komun.
- ANDRA MARIA: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. 2 terraza handi.
- ARAMOTZ: Halla, 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna.
- ARTEKALEA: 4 logela, sukaldea, egongela eta komuna.
- ASKATASUN ETORBIDEA: 4 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Garajea eta trastelekua.
- ASTOLABIDE: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna.
- LANDAKO ETORBIDEA: 3 logela, sukaldea, egongela eta komun 2. Balkoi 2. Garajea eta trastelekua.
- BARRENKALEA: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Balkoia.
- ERROTARITXUENA: Logela 2, sukaldea, egongela eta komun 2. Terraza. 2. Garajea aukeran eta trastelekua.
- ERRETENTXU: 4 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Balkoia. Garajea aukeran.
- EZKURDI: 4 logela, sukaldea, egongela eta 3 komun. Garajea aukeran eta trastelekua.
- EZKURDI: 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela eta komuna.
- F.J. ZUMARRAGA: Halla, egongela, egongelatxo, sukaldea, 3 logela eta komuna.
- FRANTZISKO IBARRA: 3 logela, sukaldea, egongela eta komun 2. Balkoia. Garajea aukeran.
- GALTZARETA: 5 logela, sukaldea, egongela, komun 2 eta bainugela 2. Portxea. Garajea eta trastelekua.
- GOIENKALEA: logela, sukalde-jangela eta komuna. 2 terraza. Trastelekua.
- JOSE ANTONIO AGIRRE: 3 logela, sukaldea, egongela eta komun 2. Balkoia. Garajea eta trastelekua.
- JUAN ITZIARKO: 2 logela, sukaldea, egongela, komuna eta despentsa.
- JUAN ITZIARKO: 2 logela, sukaldea, egongela eta komun 2. Lursailarekin.
- JUAN MARI ALTUNA: Logela 2, sukaldea, egongela eta komun 2. Garajea eta trastelekua.
- KIRIKIÑO: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna.
- KOMENTUKALEA: 2/4 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Trastelekua.
- MIKELDI: 3 logela, sukaldea, egongela eta komun 2. Balkoia. Garajea eta trastelekua.
- MONTEVIDEO: 2/3 logela, sukaldea, egongela eta komun 2. Terraza.
- MUGARRA: 3 logela, sukaldea, egongela, komuna eta bainugela. Balkoia. Trastelekua.
- PLATERUEN PLAZA: 4 logela, sukaldea, egongela eta komun 2. Garajea.
- SAN AGUSTIN: 5 logela, sukalde-jangela, egongela eta 3 komun.
- SAN FRANTZISKO: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Terraza.
- SAN IGNAZIO: 3 logela, sukaldea, egongela eta komun 2. Garajea eta trastelekua.
- SASIKOA: 3 logela, sukaldea, egongela eta komun 2. Balkoia. Garajea eta trastelekua.
- SASIKOA: 4 logela, sukalde-jangela, egongela eta komun 2. Balkoia. Trastelekua.
- TABIRA: 4 logela, sukaldea, egongela eta komun 2. Despentsa. Balkoia.
- UNDATORRE: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna.
- URKIAGA TORRE: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Trastelekua.

Etxebizitza gehiago salgai Matienan, Abadiñon, Berrizen, Zaldibarren eta Otxandion, besteak beste.

ETXEBIZITZAK SALGAI

ERMODO



- 3 logela, komun 2. Egongela, balkoia ematen duena. Sukalde-jangela, eskegitokiarekin. Ganbara eta garajea. **295.000€.**

ZALDIBAR (Erdigunean)



- 3 logela, komuna, egongela, sukaldea. 2 terraza. Igogailua. Berogailua. **140.000€.**

SASIKOA



- 73m. Logela 2, komun 2. Egongela. Sukalde, Ganbara. Garaje itxia. **195.000€.**

MURUETA TORRE



- 3 logela, komun 2. Egongela. Terraza. Esekitokia. Ganbara. Garajea. Eguzkitsua. Bista onak. **280.000€.**

FCO. IBARRA



- 110m. 3 logela, komun 2. Egongela eta sukalde handiak. Ganbara eta garajea. **275.000€.**

IPARRAGUIRRE



- Pisu altua, 98 m-koa. 3 logela, komun 2 Egongela. Sukalde. Esekitokia. Trastelekua. Garaje itxia. KAPRITXOA. **271.000€.**

LOKALAK ETA ETXEBIZITZAK ALOKAIUAN. KONTSULTATU.
www.inmoetxetxo.com

AGENDA

ANBOTOkoko agendan ezer iragarri gura baduzu, idatzi **agenda@anboto.org** helbidera edo deitu **946 232 523** telefonora, eguazten eguerdia baino lehen.



Urriaren 16an, 22:00etan,
Durangoko txosnetan

The Riff Truckers

Durangaldeko Zebel taldea, Itsua eta DJ Jackie hip hoplariak, eta Paniks eta The Riff Truckers taldeak ariko dira, gaur, Durangoko jaietako txosnagunean. 2005ean Gernikan sortutako The Riff Truckers baskoteak, 'On route' eta 'Healing the soul' diskoetako rock&roll, blues eta country ukituko kantak joko ditu Durangoko jaietan.



Jaiak

:: DURANGO

URRIAREN 16an

09:00etan, 'Ezagutu Durango eta bere ingurua', nagusiendako mendi ibilaldia, udaletxe plazatik.

17:00etan, Gurutze Gorriaren ate irekien jardunaldia, Ezkurdin.

18:00etan, Tortilla txapelketa, txosnagunean.

19:00etan, Jam Session, txosnagunean.

19:00etan, nesken gomazko paleta MPB zirkuitua, Ezkurdi Jai Alai pilotalekuan.

19:30ean, Ekialdeko dantzen erakustaldia, Khuzayma elkarreagaz, Andra Marian.

21:00etatik 00:00etara, indarkeria sexistatik gabeko txokoa, txosnagunean.

21:30ean, Las Felliniren transformismo ikuskizuna, Andra Marian.

22:00etan, Zebel + Paniks, The Riff Trickers + Itsua eta DJ Jackie (Beat Salad Records), txosnagunean.

22:00etan, The Mockers + Los Ultraligeros, Ezkurdin.

22:30ean, Jon Maia + Sustrai Colina + Unai Iturriaga + Amaia Agirre + Unai Agirre + Oihana Bartra, San Agustin kulturgunean.

URRIAREN 17an

07:00etan, Diana txistulariekin.

07:30ean, Zezenak Dira dultzaineroekin.

14:30ean, Elkartasun bazkaria, txosnagunean.

17:00etan, animazioa trikitixarekin, adinekoen egoitzetatik.

17:00etan, futbol partidua Tabiran: Culturala-Santutxu.

17:30ean, behi-futbola, eta ondoren, bigantxak, Pinondon.

18:00etan, Eonian elektrotxaranga, txosnetan hasita.

18:30ean, taldekako mozzorro desfilea, Madalenatik Andra Marira. Amaieran, sari zozketa

18:30ean, kalejira Dunbots fanfarriagaz, Madalenatik Alde Zaharrera.

19:00etan, saskibaloi partidua, Landako kiroldegian: Tabirako Baqué-Getxo SB.

20:00etan, DJ Jo Urbietta, Andra Marian.

20:00etan, astronomia tailerra eta txokolatada, Zuhatzola parkean. Ondoren, behaketa astronomikoa (euria bada, ez da egingo).

21:00etan, zezensuzkoa. Santana plazan.

21:30ean, animazioa Ghanako txarangarekin, Alde Zaharretik.

22:30ean, Nueva Alaska orkestra, Ezkurdin.

23:00etan, Luhartz eta DJ Elepunto, txosnetan.

00:00etatik 03:00etara, alkoholemia kontrolaren stand informatiboa, txosnagunean.

URRIAREN 18an

07:00etan, Diana txistulariekin.

07:30ean, Zezenak Dira dultzaineroekin.

10:00etatik 14:00etara, haur parkea, tren geltokiaren plazan (euria bada, San Antonio-Sta. Rita ikastetxean).

11:00etatik 14:00etara, 'Enginys eko-poetiks' eko jolasak, Ezkurdin.

11:00etatik 14:00etara, 'Ecoxoc' futbola, Ezkurdin.

11:30ean, kalejira txistulariekin.

11:30ean, bizikleta jaia, Andra Mariatik irtenda.

12:00etan, poniak eta zaldiak, musika eskolako parkean.

12:00etatik 14:00etara, arku tirorako gunea, musika eskolako parkean.

12:00etan, III. padel txapelketaren finalak, Landako kiroldegian.

12:30ean, 'Durango Uri' XV. margo lehiaketaren sari banaketa, Ezkurdiko udal aretoan.

12:30ean, herri kirolak, Ezkurdin.

12:30ean, poteoa Bilbotarrak taldeagaz, Alde Zaharretik.

13:30ean, Bilbainadak Bilbotarrak taldeagaz, Andra Marian.

16:00etatik 19:30era, kondaira ludoteka: mahai-jokoak, magic txapelketa eta Warhammer erakusketa, Ezkurdin.

16:00etatik 19:00etara, 'Enginys eko-poetiks' eko-jolasak, Ezkurdin.

16:00etatik 18:00era, 'Denok dantzara' L'Atelier-ekin: break dance, funky, hip hop eta party dance tailerrak, Ezkurdin.

18:00etan, mariatiak, Andra Marian: Gladys Mercado y su Mariachi Imperial.

18:00etan, Keshala + Anari Banda, txosnagunean.

18:30ean, kalejira Urolatarrak fanfarriagaz, Alde Zaharretik.

19:30ean, kalejira Patxikotxuri agur esateko, udaletxeko plazatik tren kotxe-toki zaharreraino.

20:00etan, jaien amaiera, tren kotxe-toki zaharrean.



Antzerkia

:: ELORRIO

URRIAREN 18an

17:00etan, 'Martinak bere istorioa aurkitu zueneko', Arriolan.



Berbaldia

:: ELORRIO

URRIAREN 28an

19:00etan, 'Aitaren Etxea. El caserío como fuente primaria de la historia vasca', Arte eta Historia Museoa.



Ondarearen jardunaldiak

:: BERRIZ

URRIAREN 25ean

10:30ean, gaztelaniaz, eta **11:00etan**, euskaraz, 'Arrierreka, ibai baten energia', Ereña jatetxetik.

:: ELORRIO

URRIAREN 30ean

19:00etan, Jesus Muñiz Petralandaren 'Burdinazko zimenduak dituen ondarea' berbaldia, kultur etxean.

:: GARAI

URRIAREN 17an eta 18an, eta 24an eta 25ean

11:00etatik 14:00etara, eta 14:00etatik 17:00etara, 'Burdina eta lanabesak' erakusketa.

:: IURRETA

URRIAREN 18an

21:00etan, 'Burdinolak, errementaldegia eta galdategiak' berbaldia, Ibarretxe kultur etxean.

:: MAÑARIA

URRIAREN 17an

17:00etan, 'Mitologia, burdina eta bidea' bisitaldi gidatua, eta **19:30ean**, organo kontzertua.

* Informazioa eta erreserbak: 673 005 981 telefonoan eta 'ejardunaldiak@gmail.com'.



:: DURANGO | ZUGAZA

Marte

- **barikua 16:** 19:00/22:00
- **zapatua 17:** 16:45/19:30/22:30
- **domeka 18:** 16:45/19:30
- **astelehena 19:** 18:00
- **martitzena 20:** 20:00

La cumbre escarlata

- **astelehena 19:** 21:00

2. ARETOA

La cumbre escarlata

- **barikua 16:** 19:30/22:00
- **zapatua 17:** 17:00/19:30/22:30
- **domeka 18:** 18:00/20:30
- **martitzena 20:** 20:00

El barbero de Sevilla (opera HD)

- **astelehena 19:** 20:30

:: ELORRIO | ARRIOLA

Una segunda madre

- **zapatua 17:** 22:00
- **domeka 18:** 20:00
- **astelehena 19:** 20:00

:: ZORNOTZA | ZORNOTZA ARETOA

Amama

- **barikua 16:** 20:15
- **zapatua 17:** 19:30/22:00
- **domeka 18:** 20:00
- **astelehena 19:** 20:15

Un otoño sin Berlín

- **eguaztena 21:** 20:00
- **eguna 22:** 20:00

URRIKO AGENDA



16

DURANGOKO AMANKOMUNAZGOA PARKEAN

16:00 Saio praktikokoak

ANDEREBIDE EMAKUMEEN ELKARTEA

19:00 Batzar Nagusia.

18

ONDAREAREN EUROPAKO JARDUNALDIA

IBARRETXE KULTUR ETXEA

Burdinolak, errementaldiak eta galdategiak

21:00 Hitzaldia eta bisita gidatua.

Informazioa eta erreserbak: 673 005 981 - ejardunaldiak@gmail.com, leku kopuru mugatua.

19

IURRETAKO HERRI BIBLIOTEKA

18:15 Emakumeen literatur tailerra.

IURRETAKO HERRI BIBLIOTEKA

16:45 Haurren irakurketa kluba (LH 3.maila).

17:45 Haurren irakurketa kluba (LH 4.maila).

18:45 Haurren irakurketa kluba (LH 5-6.maila).

ANDEREBIDE EMAKUMEEN ELKARTEA

18:30 Ikastaroa: "Como hablar siendo mujer para ser escuchada en un mundo de hombres".

19
23

IURRETAKO HERRI BIBLIOTEKA

Erakusketa: "NOCTIS: fotografía & literatura"

JM Arruabarrena, Txelu Angoitia.

20

IURRETAKO HERRI BIBLIOTEKA

17:30 Irakurleen kluba "Memoriak: Mikel Laboaren biografia bat".

18:30 Hitzaldia: "Dislexia, ikasteko zailtasunak, eskola porrota.

Hizlaria: Isabel Molina Zelaia.

19:00 Irakurketa kluba "Lejos de Ghana".

> **ZORION AGURRAK**

✉ zorionak@anboto.org
eguziateneko 14:00ak arteko epea



> **Nahikari** urte bi eitten dauz urriaren 19an. Zorionak etxekoan partez!



> Zorionak gure etxeko spidermanari. Jarraitu beti bezain alai. Moxu asko familia guztiaren partez.



> Zorionak, lehengusina, zure urtebetetzean. Ze ederto, zure orinel-txapelarekin. Muxu asko zure familiak.



> Asteburua ondo hasteko, afari-merixenda gozo batekin ospatukogu **Iratsen** urteguna! Mosu handi-handi bat familixa osuan partez, gure "todoterrenuari"!



> Gure **Paulek** urtebete ein dau. Zorionak familiakoan eta lagunuen aldetik.



> **Garbiñe** 12 urte egingo ditu urriaren 17an. Pluskuanzorionak etxekoan eta Totoren partez!



> **Rasid** futbolen txapelketako final handirako prestatzen dabil. Zorionak zure urtebetetzean Matienako lagunuen partez!



> Durangoko **Ángel Aniak** eta bere iloba **Liherrek** urteak betetzen dituzte urriaren 15 eta 23an. Zorionak bioi eta musu handi handi bat familia guztiaren partez!



> Zorionak mutil-handi zure 7. urtebetetzean, batez be Kattalinen partez.



> **Beñatek** urriaren 13an 9 urte bete ditu, eta **Urtzik** urriaren 21ean 6 urte egingo ditu. Zorionak eta patxo potolo bana familiako guztien partez! Ondo pasau urtegun!



> **Amagoia Zuazo** iurretarrak eta **Mari Karmen Bergaretxe** eibartarrak irabazi dituzte San Migel jailetako zozketako bidaiak. Zorionak, eta gozatu, lurretako jai batzordearen partez!



Ermodo, 11
DURANGO
Tel.: 946 201 663
gozatudurango@gmail.com

f Gozatu Gozategia

Hamabostean behin jasotako zorion-agurren artean tarta bat zotz egingo dugu. Zozketan parte hartzeko bidali kontakturako datuak zorion agurrarekin batera.

> **BOTIKAK**

BARIKUA, 16
09:00-09:00

De Diego
Intxaurren 22 - Durango

Goiria, Mari Carmen
Sabino Arana 6 - Zornotza

09:00-22:00

Sarasketa, Diego
Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

ZAPATUA, 17
09:00-09:00

Campillo
Montevideo etorb. 24 - Durango

Goiria, Mari Carmen
Sabino Arana 6 - Zornotza

09:00-13:30

Gaztelumendi
J.A. Abasolo 2 - Durango

De Diego
Intxaurren 22 - Durango

Navarro
Artekalea 6 - Durango

Bazan Diaz
Uribarri 5 - Durango

Sagastizabal
Askatasun etorb. 19 - Durango

Unamunzaga
Muruetatorre 2C - Durango

Balenciaga
Ezkurdi plaza 8 - Durango

Irigoin
Bixente Kapanaga 3 - Iurreta

Jaio-Olabarrieta
Errekakale 6 - Elorrio

Bartolome
Gabiola 2 - Berriz

Melero, Rosa Mari
San Pedro 31 - Zornotza

09:00-22:00

Sarasketa, Diego
Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

DOMEKA, 18
09:00-09:00

Gaztelumendi
J.A. Abasolo 2 - Durango

Goiria, Mari Carmen
Sabino Arana 6 - Zornotza

09:00-22:00

Sarasketa, Diego
Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

ASTELEHENA, 19
09:00-09:00

Mugica
Andra Maria 9 - Durango

Melero, Rosa Mari
San Pedro 31 - Zornotza

09:00-22:00

Sarasketa, Diego
Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

MARTITZENA, 20
09:00-09:00

Irigoin
Bixente Kapanaga 3 - Iurreta

Melero, Rosa Mari
San Pedro 31 - Zornotza

09:00-22:00

Sarasketa, Diego
Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

EGUAZTENA, 21
09:00-09:00

Unamunzaga
Muruetatorre 2C - Durango

Melero, Rosa Mari
San Pedro 31 - Zornotza

09:00-22:00

Sarasketa, Diego
Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

EGUENA, 22
09:00-09:00

Etxebarria
Montevideo etorb. 2 - Durango

Melero, Rosa Mari
San Pedro 31 - Zornotza

09:00-22:00

Sarasketa, Diego
Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

> **EGURALDIA**

ZAPATUA 6° 20°

DOMEKA 12° 22°

ASTELEHENA 12° 17°

MARTITZENA 8° 15°

Durangaldeko Baserritarren Elkartea



Murueta, 6
Tel.: 94 681 87 92
48200 ABADIÑO BIZKAIA

hitz

#gomendioak

artekalea 14, durango
946 810 776
info@hitzliburudenda.com

liburudenda



HELDUEZTAT
EGUNERO
EGUN ERO
Fito Rodriguez (2015)



UME ETA GAZTEENTZAT
NON ARRAIO DAGO
LOREREN TXITA?
Pat Hutchins (2015)



MUSIKA
ENCORES
Charles Aznavour (2015)

“Mapak talde sozialean eragiteko medio erraz eta indartsuak dira”

XVI. mendetik XXI. mendera arteko Durangaldeko 20 mapagaz erakusketa dago zabalik, urrian, Durangon

> AKUILUA Aitziber Basauri ‘Durangaldeko kartografia’ erakusketa ikusi daiteke Durangoko Arte eta Historia Museoan. XVI. mendetik XXI. mendera arteko Durangaldeko 20 mapen bitartez atzera begiratu historikoa egiteko gonbita egin dute.

Kartografiaren bitartez atzera begiratu egin gura duzue... Espazioaren irudikapen grafikoetan, alegia, mapetan, Durangaldeak hartu duen irudiaren atzera begirako historikoa egin gura izan dugu. Hori bai, irudi inprimatuak dira ia denak, ez dago eskuizkriburik. XV. mende erdialdean inprenta sortu zenetik gaur egunerako bidea egin gura izan dugu: XVI. mende bukaeratik ia XXI. mendera arteko adibideak daude. Lerro historiko hori islatu gura dugu.

Mapa zaharrena 1606koa da. Bai, Mercatorren atlasean (1595) du jatorria; matematikari flandestar ospetsuaren obra hori da atlas izenagaz argitaratutako aurrenekoa, baina, ez dago Euskal Herriko maparik. Hurrengo edizio batean jasoko dira Iberiar Penintsulako herrialdeetako mapa batzuk; gurea islatzen duena ere bai: Kantabria eta Nafarroatik haratago doa, Frantziako hego-ekialdea ere hartuz. Euskal lurralde esparrua islatuko du 1606ko edizio horrek; Durangaldea barne.

Nondik datorkizu kartografiarekiko zaletasuna? Beti deitu dit atentzioa, liburutetan, Euskal Herriko irudi historikoak testuinguruan kokatu gabe agertzeak. Eta, gehienak beste batzuen begiratu dira. Erakusketan ikusi daiteke hori: ediziorik antzina-koenak flandestarren begirada dira. Urruneko errealtatea zaie gurea. Horren zergatia aztertut gura izan dut.

Argitu duzu jatorria? Botere irizpideak daude hor. Lurralde irudikapen ona duenak eraso eta defentsa lerroak edo fiskalitatea erabaki ditza-ke; lurralde eta politika kudeaketa eroan...

Lurralde baten egitura sozio-politikoak islatu dezake? Ez hori bakarrik, baita egitura sozio-politiko baten nahia ere. Adibidez, Kanariak

ageri diren Marokoko mapa atzean duela egiten die harrera hango erregeak espainiar ordezkari; edo EITBren eguraldiaren mapa. Talde sozialean eragiteko baliabide erraz eta indartsuak dira.

Sasoien arabera dira. Osagai asko du mapa batek: zientzia, teknika, historia, gizarte, geografia eta artea. Momentuko gizartearen egoera islatzen dute. Durangaldeari dagokionez, altueren irudikapenean igarriko da denboraren joatea. Osagai artistikoetan ere ikusi daiteke XVI-XVII. mendetik XX.era arteko aldaketa.

Merindadea argi islatzen duen maparik badago? Gernikako Batzar Nagusien hauteskundeetarako momentuko lurralde-mugapea azaltzen duten XIX. mendeko mapa bi daude; XVIII. mendeko hirugarren bat ere bai, hiribildu, eleizate eta merindadeen arteko mugak islatzen dituen.

Bitxiko mapa bat ere badago. Bitxia iruditu zaigu hiria zeharkatzen duen ibaiaren ibilguaren izendapena: Fiume Durango. XIX. mende hasieran Bonaparteren armadari lagundu zioten ingeniariak horrela izendatu zuten.



Txelu Angoitia

LAUHORTZA

MARISA BARRENA



Eutanasia

Heriotzaz berba egitea gogorra da eta, sarritan, baztertu edo ahaztu egin gura izaten dogu, baina, heriotza bizitzaren parte da, eta duintasunez hiltzeko eskubidea izan beharko geunke guztiok, lege egokien bidez. Egia esan, aspaldion gai honen hautsak astintzen dihardu han-hor-hemen.

Oraintsu, Galiziako 12 urteko Andrea neskatoaren gurasoek euren alabarentzako heriotza duinaren aldeko borroka gogorra egin dabe. Baionan barriz, Nicolas Bonnemaison medikua epaitzen hasiko dira barriro, zazpi gaixo hiltzea leporatuta. Asturiasko fiskaltzak be sei urteko kartzela zigorra eskatzen dau eutanasiaren aldeko elkarte bateko kideentzat, 2012an emakume bati hiltzen laguntzeagatik.

Gai honetan adituak direnen iritziz, oster, eutanasiak ez deutso inori minik egiten; legerik ezak, bai. Duintasunez hil gura dauenak horretarako autonomia behar dau, eta arauak jartzeko sasoia da, gizartearen behar bati erantzuten deutso-eta. Gaia jorrazteko ausardia falta da baina, ez dagigun ahaztu: gaixoak be herritarrak dira, eta politikariak behartuta dagoz esku hartzera eta gai honi arretarik heltzera.

Esate baterako, Belgikan 2002an arautu eben eutanasia: nor jaso ahal dauen, zein baldintzatan, juridikoki zelako mugak jarri behar diren gehiegikeriak baztertzeko. Han, txarto pasatzen ari bada, gaixoak botika konposatu bat jasotzeko laguntza eskatu leike. Belgikan ez eze, Herbehereetan, Luxenburgon eta Suitzan be legeztatuta dago eutanasia. Noizko gurean?

PLATERUENA

Landako Hiribidea, 4A

946 030 300

www.plateruena.eus

ETXEKO GOSARIAK

Astelehenetik ostiralera 9:00etatik aurrera

BIZKOTXOAK
TOSTADAK
PINTXOAK
CROISSANT-AK

IGANDEETAKO MENU BEREZIOAK

Astelehenetik larunbatera eguneko menua